...eta Kitto!
2018-I-19
1042 zkia.



# Sugeak harrapatuta




MERKE ALDIA
2 mō betaurreko graduatu
erreflexuen aurkako leiarrekin
79€
aurretiko prezioa: 99€

Arrasate • Bergara • Beasain • Donostia • Errenteria
Irun • Lasarte-Oria • Ordizia • Tolosa

Kontsultatu itzazu zure optikan kanpainaren ezaugarriak.
Ezingo da beste eskaintza batzuetan erabili.

Bidebarrieta, 2
Tel.: 943 20 05 22
EIBAR

multiópticas
lehena zerbitzu optikoetan

# osasun gida

## Dentistak

**arat** Hortz Klinika
943 20 18 51
info@clinicadentalarat.com
www.clinicadentalarat.com
Toribio Etxebarria, 4 - 1ºesk

*Hortz-osasuneko profesional taldea zure zerbitzura.*

UniverSalud
Mutua, konpainia eta kolektibo handiekin itundutako zentroa

R.P.S. 123/17



Esku onetan egotearen ziurtasuna.
20.000tik gora paziente pozik. Etorri eta egin irribarre berriz ere.

**bista eder**
clínica dental · hortz klinika
Deitu | 943 70 00 82
bista eder, 19
www.bistaeder.es

**EIBAR** HORTZ KLINIKA CLÍNICA DENTAL
MAITANE G. IÑIGUEZ
Zerbitzu guztiak klinika berberan
San Agustín, 4 behea ezk.
**943 537 076 - 688 884 808**
info@eibarclinicadental.com
www.eibarclinicadental.com

**Pedro Etxeberria Gisasola**
**DENTISTA**
09.00etatik 13.00etara eta 15.00etatik 20.00etara
EGUNERO
Calbeton 19 - 3. ezk.
Tfnoa: 943 20 72 17

**GASTESI**
Hortz-Klinika
Odontologia orokorra eta prebentziozkoa / PADI
Ortodontzia / Inplanteak / Laser Teknologia
**Errebal, 9 - 1. C** **943 70 00 90 / 688 68 96 02**

hortz-klinika
**B. IZAGIRRE**
clínica dental
EGUNERO
Untzaga, 5 - 4. Tel. **943 70 23 85**

**IRAZABAL**
clínica dental
**Irribarreetan adituak**
ESPEZIALITATE GUZTIAK
Julian Etxeberria, 12 - 1. Esk.
Tfnoa. 943 20 85 52
www.clinicairazabal.com

**MIGUEL SEMINARIO ZURIARRAIN** ODONTOLOGOA
Odontologia orokorra
Ortodontzia
Inplanteak
**Bidebarrieta, 7 - 1. esk.** **943-702896**

10 urte zurekin Eibarren
25 prestazio doan zuretzako
**VITALDENT**
*Konpromisoa*
San Juan, 7
943 821 885 - 690 628 731
www.vitaldent.com

## Dietetika/Nutrizioa

**NATUR HOUSE**
Ainara Iriondo Ansola
GIZA ELIKADURAN ETA DIETETIKAN DIPLOMATUA
Toribio Etxebarria, 22
Tel. 943 108 020 Mug. 677 551 850

## Errehabilitazioa

**CRF AMOSTEGI**
**ERREHABILITAZIOA**
* *Fisioterapia / Errekuperaketa funtzionala*
* *Min-Unitatea*
* *Inkontinentzia urinarioak*
* *Kirol medikuntza*
* *Ama izateko prestakuntza*

Muzategi 2 (EIBAR) Tfnoa. 943 20 34 46
San Ignacio 2 (ELGOIBAR) Tfnoa. 943 74 33 74

## Estetika klinika



**abontza**
clínica estética
Dr. J. Ramón Fdez. Ciudad
**MEDIKUNTZA** ESTETIKOA
**KIRURGIA** ESTETIKOA
Egiguren, 6 - behea 943 206 044

## Fisioterapeutak

**ANE MENDIA**
970 Kolegiatu zbkia.
Indibaterapia
Kirol lesioak
Drenaje linfatikoa
FISIOTERAPIA ZENTRUA
Arragueta, 20
Tlf: 943 53 06 42
ane_mendia@hotmail.com

## Ginekologia

**Mª Jose Ruiz de Porres**
**DOKTOREA**
- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrazepzioa

**T. Etxebarria, 4 - 1. ezk.** **943 20 28 57** **94 444 95 34**

## Logopedak

**AHOTS-LAN**
LOGOPEDIA-PSIKOLOGIA



**Isasi, 17 - 1. esk.**
**943 202691**
**ahotslan@gmail.com**
**Diagnostikoa eta tratamendua**

**Degluzio atipikoa**
Disfonia
Ikaste-arazoak

**Arreta arazoak**
Berba arazoak
Dislexia

LEHENENGO KONTSULTA DOAN

...eta kitto!
Euskara Elkartea

**ARGITARATZAILEA:** ...eta kitto! Euskara Elkartea.

**HELBIDEA:** Urkizu, 11. 20600 Eibar

**TELEFONOAK:** 943 20 67 76 / 943 20 09 18.

**FAXA:** 943 20 28 72.

**ASTEKARIAREN E-MAILAK:** erredakzioa@etakitto.eus komunikabideak@etakitto.eus publizitatea@etakitto.eus

**ELKARTEAREN E-MAILAK:** elkartea@etakitto.eus / normalizazioa@etakitto.eus

**ERREDAKZIO-KONTSEILUA:** Ana Aizpurua, Itziar Albizu, Ekhi Belar, Jose Luis Gorostegi, Silbia Hernandez eta Uxue Igarza.

**ADMINISTRAZIOA:** Marisol Uriarte.

**KOORDINATZAILEA:** Ana Aizpurua.

**ERREDAKZIO-BURUA:** Silbia Hernandez.

**DISEINUA ETA MAKETAZIOA**: J.L. Gorostegi.

**ARGAZKI ARLOA:** Maialen Belaustegi eta S. Hernandez.

**HIZKUNTZA ARDURA:** Juan Andres Argoitia eta M. Aranberri.

**PUBLIZITATEA:** Itziar Albizu eta Belen Ulazia.

**TELEFONOA:** 943 20 67 76.

**AZALEKO ARGAZKIA:** Javier Izquierdo

**BANAKETA-ARDURADUNA:** Ainhoa Luz.

**TIRADA:** 8.150 ale.

**INPRIMATEGIA:** GERTU koop. (Oñati).

**COPYRIGHT-A:** ...eta kitto!

**LEGE-GORDAILUA:** SS/430/92.
**ISSN:** 1132 - 1679

*("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)*

2015 Bikain

*Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailak diruz lagundutako aldizkaria*

EIBARKO UDALA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA
(HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

# eskutitzak

## – Amañako jaien aldeko zozketako erreserbako zenbakiak sartu dira indarrean –

**Amañako Jai Batzordearen alde Maite Markuerkiagak antolatutako zozketa** San Andres egunean egin ondoren, notarioaren aurrean, eta saria irabazi zuten 179 zenbakiak kaleratu eta gero, hainbat sari geratzen dira oraindik jasotzeko. Hori dela-eta, erreserbako ondorengo zenbakiak dituztenak pasatu daitezke euren sariak jasotzera otsailaren 28ra arte. Honako hauek dira zenbakiak:

| | | | | |
|---|---|---|---|---|
| 574 | 4.485 | 9.409 | 12.486 | 20.888 |
| 712 | 4.487 | 9.490 | 12.492 | 22.095 |
| 722 | 6.507 | 10.451 | 15.093 | 22.203 |
| 856 | 7.096 | 11.095 | 15.164 | 22.307 |
| 877 | 7.164 | 11.265 | 15.201 | 22.323 |
| 1.491 | 7.183 | 11.283 | 15.253 | 22.396 |
| 3.502 | 7.302 | 11.357 | 15.318 | 24.076 |
| 3.354 | 8.557 | 11.492 | 15.505 | 24.091 |
| 3.455 | 8.684 | 12.075 | 15.680 | 24.379 |
| 3.465 | 8.810 | 12.126 | 16.008 | 28.461 |
| 4.121 | 8.861 | 12.210 | 16.185 | 28.672 |
| 4.256 | 9.259 | 12.217 | 20.596 | 30.066 |
| 4.312 | 9.294 | 12.383 | 20.799 | 30.203 |
| 4.406 | 9.296 | 12.455 | 20.883 | |

# Gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera

**MAIÑETAN JARDUN**.- Motiborik edo minik gabe negar egin. Gehienetan ume berbetan erabitzen da. *"Karamelua dala-ta, egun guztian maiñetan dihardu"*

# astean esanak

"6 urtetik gorako haurrak dituzten berrehun bat familia izango dira Euskal Herrian haurrak etxean heztea erabaki dutenak. Eskola sistemak ere etxean hezteak planteatzen duen bidea hartzen ari da, hau da, indibidualizazio handiagoa izatea, lehiakortasuna bultzatu beharrean kolaborazioa bultzatzea, memorizatu beharrean sormena garatzea, ikasleen hitza kontuan hartzea... Azken batean, protagonista ez da izan behar sistema bera edo irakaslea, ikaslea baizik. Etxean hezteko joera sintoma bat da"

(Madalen Goiria, EHUko irakaslea)

"Tradizioaren ustez lagun onenak diren batzuk diote San Sebastianeko Martxa bakarrik urtarrilaren 20an interpretatu beharko litzatekeela. Ezingo ahal da urteko beste edozein egunetan jo? Ba probintziako herri askotan egiten dute. Abuztuaren 31n era abesten da Aratosteak gerturatzen doazela. Zer dauka horrek txarra? Ez dira gero eta gertuago, ala? Azaroaren amaieratik entzuten dut nik San Sebastianeko Martxa Donostiako hainbat tokitan. Horiek bai ume gaixoak, hainbeste entsegu eta baldintza kaskarretan askotan. Hiru entsegu baino gehiago egiten duen danborradako konpainia kaleratua izan beharko litzateke"

(Jose Ignacio Ansorena, musikaria)

"Erosotasunean eta sakrifizioaren kulturatik urrun hazitako gazteen belaunaldiak egoera berriak sortzen ari dira, zenbait kasutan hainbat kirol elkarte inguruko herrietakoekin elkartzera behartuz taldea osatuko badute. Ohituren aldaketa horrek banakako kiroletan ere badu bere isla. Hainbat herri probatan, konpromiso zurrunik gabe jendea bere kabuz entrena daitekeenetan beterano edo helduen mailako partaide kopuru itzelak biltzen dira. Horren lekuko ditugu Behobia-Donostia lasterketa edo Getaria-Zarautz zeharkaldia. Horrelakoetan, gainera, senior mailako fitxa kopurua asko jaitsi da"

(Luis Mari Zulaika, kirol irakaslea)



PEDRO ALBERDI

## Comusa

Eskuartean dudan argazkiaren arabera, Juan Atxotegi eta Alberto Zabala 1965-66 ikasturtean ezagutu nituen, Sagrado Corazoneko bigarren mailan, zortzina urte genituela. Biak ere eskolan ez ziren aurrenetakoak, baina futbolean bai, eta begiko nituen. Ikasgela barruan aparte samar bageunden ere, atsedenaldietan berehala juntatzen ginen atarian, baloiaren inguruan, futbolean egiteko.
Artean udazkena zen, larunbat arratsaldea, eta futbolean geniharduen ikastetxeko patioan. Halako batean, ez dut gogoan zergatik, partidua bertan behera utzi, eta ez non eta ez han, kalean suertatu ginen hirurok, zer egin ez genekiela. Lehenengo, Isasiko zeharkalean behera, Alfara jaitsi, eta hango sarrera-pasabide nagusiko zoluan eserita, nor baino nor aritu ginen geure balentriak elkarri kontatzen. Hurrena, berriz, handik jaiki eta panparroikerian jarraitu genuen, Galerias-ko parkera iritsi artean. Han, laineza hartuta, neska-mutil bikoteak zelatatzen eta harritxintxarrak botatzen jardun genuen Dos de Mayora.
Azkenean, arratsaldea aurrera eta gu gero eta kirtenago, ekintza bat proposatu nien neure lagun berriei: Comusara joatea lapurretan egitera. Adierazi nien gure etxean beti zegoela enkarguren bat egiteko eta erosketaren aitzakiarekin erraza izango zela zerbait lapurtzea. Nire adiskideek ez zuten txintik esan. Hartan, etxera joan, amarekin hitz egin, bizpahiru enkargu apuntatu, kapazoa hartu eta kalera irten nintzen ostera. Hirurok sartu ginen Comusako supermerkatura, han, eliza aurreko aldapan, gerora PCEren egoitza izango zen sotoan.
Ekintza ondo atera zitzaigun. Gero, Bista Ederren, Montecasino tabernaren aurreko parke txikira joan eta elkarren artean banatu genituen litxarkeria ostu berriak. Gaur ez nago harro azio hartaz; bai, ordea, Juan eta Albertoren adiskidetasunaz.

## Landa-eremu eta nekazaritzarako diru-laguntzen deialdixa zabalik dago



**Debemen, Debabarreneko Landa Garapen alkartiak aditzera emon dabenez,** 2018ko ekitaldirako landa-eremuen ekonomixaren dibersifikaziñorako, enplegua sustatzeko eta Euskal Autonomia Erkidegoko nekazaritzako inguruniak garatzeko diru-laguntzen deialdixa zabaldu dabe, onuradun pribatuendako. Deialdixa ondoko landa-eremueri zuzenduta dago: Eibarren, Otaola, Mandiola, Arrate, Gorosta eta Aginaga auzuak. Eskaeriak aurkezteko epia martxuaren 1era arte egongo da zabalik eta, gaixaren inguruko zalantzak argitzeko zein bestelako argibiderik eskatzeko, Debemen alkartera juan leike (Elgoibarko Kalebarren plaza, 1-2), 943744067 telefonora deittu edo, bestela, agurtzane@debemen.eus (Agurtzane Etxaniz) / amaia@debemen.eus (Amaia Esnaola) helbidietara idatzi.

**asteko 2.505 datua**

***kontsulta jaso zittuan udal artxibuak 2017xan; gehixenak, 1.720, zuzenian artxibora juandako jendiak egin zittuan eta 785, barriz, telefonoz edo internet bidez aillegau jakuezen. Horrez gain, 23 dokumento mailleguan laga eta 5.568 espediente artxibau zittuen.***

## Lilatoian parte hartzeko izen-emotia zabalik




Aurten be Lilatoia egingo da martxuan eta proba horretan parte hartzeko izen-emotia zabalik dago. Aurtengua 29. ediziñua izango da eta martxuaren 4an egingo dala iragarri dabe, 10.30xetan hasitta. Korrikalarixak 5 kilometroko ibilbidia egin biharko dabe Donostian zihar. Urtetik urtera Eibartik gero eta andra gehixago animatzen da parte hartzera eta, 3 talde haundixenendako sarixak daguazenez, aurten be eibartarren artian talde bat sortzia pentsatu dabela adierazi deskue: *"Oin dala bi urte egin genduan eta 3. postua lortu genduan, ia aurten gorago gelditzen garen!"*. Inskripziñua egitterako orduan "taldearen izena" jartzen daben tokixan EIBAR jartziarekin nahikua izango da. Iaz 5.000 emakume izan ziran urteera puntuan.

## Tripontzia Urteberriko sari nagusixa Urduñara juan da




Gure Esku Dagok eta Euskararen Kontseiluak alkarlanian martxan ipiñitako Tripontzia Urteberriko Sariaren zozketia egin zan astelehenian eta zenbaki sariduna Urduñako Sutegi tabernan saldutako 09550 izan zan. Sari nagusixarekin batera beste sari batzuk be laga dittu zozketiak Bizkaiko herri horretan, 102.000 euro totalian. Bestalde, urtarrillaren 27xan aurkeztuko dau Gure Esku Dagok ekaiñaren 10ian izango dan mobilizaziñua, Donostiako Eureka Zientzia Museuak hartuko daben ekitaldixan.




Maialen Belaustegi

# Edarto pasau zeben Gureak taillarrekuak urteroko bazkarixan

Auzokoak alkartekuak, urteroko martxan, Errege eguna pasauta, aurreko zapatuan egin eben bazkarixa Gureak taillarrekuendako Urkusu Gain eta Erdi Bana alkarte gastronomikuetan. Bazkarixaren ondoren, jai eguna biribiltzeko dantzaldixa eta oparixen zozketia egin zittuen (argazkixak ikusteko www.etakitto.eus orriko MEDIATEKAN sartu). Antolatzailliak euren esker ona azaldu nahi detse ekitaldixari laguntza emoten detsen enpresa eta erakundieri: Eusko Jaurlaritza, SPRI, HABE, Gipuzkoako Foru Aldundia, Egoibarra (Eibarko Udala), SD Eibar, Eibarko EAJ-PNV, Urkotronik, El Corte Inglés, Eroski, Bankoa Crédit Agricole, Kutxabank, Caja Rural de Navarra, Lejardi / Zurich aseguruak, …eta kitto!, Club Sibaris, Solera Eibarresa, Distribuciones Vicuña, Esteban Oroz Aizpun, AGME, Jaz Zubiaurre, Arriola kioskoa, Cioka Creativa, Ketesa 2010, Ternua eta Azitaingo gasolindegia (AVIA).

# autuan

## MUSEUA DUAN BISITATZEKO AUKERIA ASTEBURUAN

**Armagintzaren Museuak 11 urte bete zittuan atzo eta, urteurrena ospatzeko, atzo ez eze, gaur, bixar eta etzi sarrera duan izango da, ohiko ordutegixan: gaur eta bixar, 16:00etatik 20:00etara eta domekan, barriz, 10:00etatik 13:00etara.**



## AHAL DUGU-REN MOZIÑUAK

**Podemos Eibar Ahal Duguk moziño bi aurkeztu dittu udalian: batian "Euskadi lagunkoia" herriko nagusixen partehartzia sustatzeko programarekin bat egin eta horren inguruan daguan udalerri-sareko kide billakatzia eskatu detse udalari; eta bestian, mendi-inguruetako eten-digitala murrizteko konpromisua hartzeko eskaeria egin detse udalari eta Diputaziñuari.**




**URTARRILA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 |
| 8 | 9 | 10 | 11 | 12 | 13 | 14 |
| 15 | 16 | 17 | 18 | **19** | 20 | 21 |
| 22 | 23 | **24** | 25 | 26 | 27 | 28 |
| 29 | **30** | **31** | | | | |

**MARTXOA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | 4 |
| 5 | **6** | **7** | **8** | **9** | **10** | 11 |
| 12 | **13** | 14 | 15 | 16 | **17** | 18 |
| 19 | **20** | 21 | 22 | 23 | 24 | 25 |
| 26 | 27 | 28 | 29 | 30 | 31 | |



**OTSAILA**

| | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|
| | | | 1 | 2 | 3 | **4** |
| 5 | **6** | 7 | 8 | 9 | 10 | 11 |
| 12 | **13** | 14 | **15** | 16 | 17 | 18 |
| 19 | 20 | **21** | **22** | **23** | 24 | **25** |
| 26 | 27 | 28 | | | | |

**2018ko urtarrila-martxoa**

**kultur eskaintza**

...eta kitto!
Euskara Elkartea
*Urkizu pasealekua 11, solairuartea*
*20600 Eibar (Gipuzkoa)*
*Tel: 943 20 09 18*
*elkartea@etakitto.eus*
*www.etakitto.eus*

Barixakuero *…eta kitto!* astekaria
Hilero *Txikitto!* umeen aldizkaria
Astero *Berbetan* mintzapraktika taldeak
Itzulpenak eta diseinu-lanak

# Bixar estrenatuko dabe "¡Diga 33!" jaialdixa Lagun Taldekuak



**Urtero egitten daben moduan, aurten be Lagun Taldeak dantza eta musika jaialdixa** eskinduko dau Hezkuntza Esparruan. Oinguan aurkeztuko daben ikuskizunak "¡Diga 33!" izenburua daka eta emanaldi bi egingo dittue: lehelengua bixar izango da, 17:30xetan eta bigarrena, barriz, hurrengo zapatuan, toki eta ordu berian. Bixetarako sarrera guztiak salduta dagoz. Lagun Taldeko kide eta begiraliak anbulatorixo batian girotutatako situaziño ezberdiñak antzeztuko dittue, dantzak eta musikia tartekatuta, eta beti be umore klabian. Bide batez, Lagun Taldeko arduradunak jaialdixan ez eze urte osuan laguntzen ibiltzen diran boluntarixueri euren esker ona azaldu nahi detse. Lagun Taldekuak astian hiru egunetan, astelehen, eguazten eta barixakuetan alkartzen dira, 18:00etatik 19:00etara, Argatxan daken lokalian.




## Mendebaldeko Sahararako janarixa biltzeko kanpaiñia

**Eibar-Sahara Elkarteak Mendebaldeko Saharara** bidaltzeko elikagaixak batzeko kanpaiñia ipiñi dau martxan aurten be. Urtarrillaren amaiera arte jasoko dittue produktuak: arroza, pasta, lekaleak, azukria, atun eta sardiña latak olixotan eta konpresak. Eibarren, BM, El Corte Inglés, Eroski eta Villalba supermerkatuetan eta Isasi okindegixan batzen ari dira; Mendaron, Coviran eta Puxikan; eta Elgoibarren, barriz, BM eta Eroskin.

## Banatu dabe Mogel Isasiko ikaslien otarra

**Mogel Isasi ikastetxeko 4. DBHko ikasliak Gabonetan** zozketatu eben otarraren irabazlia Anabel Comino izan da. Argazkixan ikusten dozuen moduan, sarixa pozarren jaso eban Jon Garaizabal ikastetxeko zuzendarixaren eta ikasle baten eskutik. Zorionak eta on egin!



## URTARRILA

**Urtarrilak 19, *barixakua:***
Gurasoak Berbetan, "Barixakuak Jolasian": Mozorro-tailerra. 17:00etan ...etakitto!n.

**Urtarrilak 24, *eguaztena:***
Artilearekin abalorioak egiteko tailerra. 18:30ean ...etakitto!n. Heldu eta umeentzat. Izen-ematea 3€ (943200918).



***Urtarrilak 30 eta 31, martitzen eta eguaztena:***
Munduko janarien tailerra: Peilak eta torradak. 18:30-20:30 Izen-ematea urtarrilaren 22tik 29ra (Berbetan programaren barruan).



## OTSAILA

**Otsailak 4, *domeka:***
Santaeskea ...eta kitto!-ren eskutik. 11:00etan entsaioa ...etakitto!n eta 12:00etan kalera irtengo gara.

**Otsailak 6, *martitzena:***
Harixa Emoten literatur tertulia. Juanjo Olasagarreren "Poz aldrebesa" liburua. 19:00etan Portalean.

**Otsailak 13, *martitzena:***
"Txertoak bai ala ez?" hitzaldia. 19:00etan ...etakitto!n.

**Otsailak 15, *eguena:***
Jakoba Errekondoren "Landareak lantzen" liburuaren aurkezpena. 19:00etan ...etakitto!n.




**Otsailak 21, *eguaztena:***
Henna tailerra. 18:30ean ...etakitto!n. (Ongietorri Berbetan-en barruan).

**Otsailak 21, 22, 23 *eguazten, eguen eta barixakua:***
Neguko factoring-a. Euskaraz Primeran! kanpainak txokoa izango du.

**Otsailak 25, *domeka:***
Gurasoak Berbetan, "Domeketan Jolasian": Talo-ikastaroa, Portaleko sukaldean. 11:00-13:00.

## MARTXOA

**Martxoak 6, *martitzena:***
Harixa Emoten literatur tertulia. Uxue Alberdiren "Jenisjoplin" liburua. 19:00etan Portalean.

**Martxoak 7, *eguaztena:***
Euskararen Transmisioaren Mintegia. 09:00-14:30 Portaleko areto nagusian.



**Martxoak 7, 8, 9 *eguazten, eguen eta barixakua:***
IV. Gilda Lehiaketa. Euskeraz Primeran! kanpainako tabernentzat.



**Martxoak 10, *zapatua:***
Berbetan mendi-irteera, lore- eta landare-bilketa.

**Martxoak 13, *martitzena:***
"Wikiemakumeak" proiektuaren aurkezpena (Emakumearen Egunaren harira). 19:00etan Portalean.

**Martxoak 17, *zapatua:***
"Izan zirelako gara" Mintzodromoa (Emakumearen Egunaren harira). 10:30-13:30 udaletxeko patioan.

**Martxoak 20, *martitzena:***
Munduko janarien tailerra (Maroko). Portaleko sukaldean. 18:30ean.

## Mugikorrari etekin gehixago etara nahi detsen jubilauendako ikastarua

**Smartphone edo telefono mugikorra zelan erabiltzen dan jakin arren,** etekin haundixagua etara nahi detsen jubilauendako ikastarua emongo dabe Untzagako jubilau etxian. Ikastaruan, bestiak beste, telefonua ordenadoriari lotu eta argazkixak zelan deskargatzen diran, sare sozialetan zelan ibilli, interesatzen jakuezen aplikaziñuak zelan instalau… eta holakuak ikasteko aukeria izango da. Danera hiru saio izango dira, urtarrillaren 22 eta 29xan eta otsaillaren 5ian (astelehena), 10:00etatik 13:00etara eta izena emoteko lehen pisuan daguazen buleguetara juan biharko da. Ikastaruak 10 euro balixo dau eta, daguazen tokixak baiño jende gehixagok izena emongo baleu, zozketia egingo dabe.





## Ekintzailliendako diru-laguntzak azaltzeko saiua egingo dabe Debegesan

**Lanbide - Euskal Enplegu Zerbitzuak ekintzailliendako diru-laguntza deialdi barrixa** argitaratu dau. Debabarrenian, langabezixan daguazen eta enpresa-ideia bat garatu edo enpresa-proiektu barrixa martxan jarri nahi dabenak Debegesa garapen agentziaren bittartez eskaeria egitteko aukeria izango dabe (epia urtarrillaren 25etik otsaillaren 1era egongo da zabalik). Edozelan be, deialdixaren inguruko zalantzak argittu eta beste xehetasunak emoteko, datorren asteko eguaztenian, 12:00-xetan, informaziño-saiua egingo dabe Debegesan. Debegesak, guztira, 52 laguntza eta 74.575 euro kudeatuko dittu eskualdian. Onartutako 52 diru-laguntzetatik 22 enpresa-ideiaren bat aztertu eta garatu nahi dabenendako izango dira eta beste 30, barriz, enpresa-proiektu barrixak abiatzeko diru-laguntzak izango dira. Informaziño gehixago nahi dabenak debegesa.eus webgunian sartuta edota 943820110 telefonora deittuta (Jaione Leibar) izango dau horretarako aukeria.

## Eva Juezek ordezkatuko dau Garbiñe Mendizabal EAJ-PNVren legebiltzar-taldian

**Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari izendatziak** jeltzalien legebiltzar-taldian aulki bat hutsik laga dau eta, Mendizabalek lagatako toki hori Eva Juezek hartuko dau. Eva Juez (Eibar, 1972) ziñegotzixa da Eibarko Udalian 2005etik, eta udal taldiaren bozeramaille izan zan 2009tik 2015era bittartian. Urte hartan Eusko Legebiltzarrian sartu eta han egon zan, X. legealdixa amaittu arte. Aurreko barixakuan aurkeztu zittuan kredentzialak Euskal Ganberan, eta otsailleko lehen bilkuran hartuko dau kargua. Euskalduna, EGA tituluduna, Kazetaritzan (UPV-EHU) eta Pianuan lizentziatua da, eta ikasketa osagarrixak dakaz Historia Garaikidian.




Maialen Belaustegi

## Aroari laguntzeko bazkari arrakastatsua egin zen zapatuan

**Oin dala gitxi Coffin-Siris sindromia, gaixotasun genetiko oso arrarua diagnostikau** detsen Aroa ume eibartarrari laguntzeko bazkarixa egin eben zapatuan Untzagan, Haize Aroa alkartiak eta Eskozia La Brava lagunarteak antolatuta, Eibar KE eta Atlético de Madriden arteko partiduaren aitzakixarekin. Goizian zabaldu eben txosnia eta musikia DJ Kurrok ipiñi eban. Gaiñera hainbat zozketa egin zittuen. Bazkaltzeko, barriz, udaletxeko arkupietan bertan sukaldatutako paella edarra jan eben. Ekimenak Eibar KE-ren, Udalaren, Etxeberria Arkitektura Estudioaren eta Isekin eta Amaña es la Caña alkartien babesa jaso eban. Ekitaldiko argazki bilduma www.etakitto.eus helbidian, MEDIATEKA atalian ikusteko moduan dakazue.




Datorren martitzenean, 19:00etan, "Umeak euskaldun haztea helburu" izenburuko saioa emango du Paula Kasares soziolinguista eta Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasleak Portaleko areto nagusian. Eibarren AKEBAIren ekimenez urte osoan jarraipena izango duen "Hamaika Berbaldi" egitasmoari lotutako hitzaldian Kasaresek ondo baino hobeto menperatzen duen gaia izango da ardatza: euskararen transmisioa. Azalduko dituenak interes handikoak gertatuko zaizkie euskaltzale guztiei, are gehiago inguruan ume eta gazteak dituztenei.

## PAULA KASARES (soziolinguista):

# "Euskaldun hazteko haurrak euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera ohikoak eta askotarikoak behar ditu"

***- Eibarren emango duzun hitzaldiaren izenburua "Haurrak euskaldun haztea helburu" da. Nondik nora jotzeko asmoa daukazu? Helburu hori beteta ikusteko bidean, badago ezinbestean kontuan hartu beharreko pausorik?***

Gure tradizio soziolinguistikoan, haurrak hizkuntzaz jabetzeko prozesuaz jardun dugunean, euskararen *transmisioaz* mintzatu gara eta hizkuntza emate hori familian (lehen mailako transmisioa, naturala, informala) edota eskolan (bigarren mailako transmisioa, kulturala, formala) gertatzen da. Nire ustez, hizkuntzak belaunez belaun nola segitzen duen irudikatzeko erabat desegokia da ikuspuntu hori. *Transmisio* hitzaren atzean irudi lineal bertikala dago, noranzko bakarrekoa, beti goitik beherakoa: batek transmititu eta bertze norbaitek jasotzen du (helduek haurrei egiten diete, gurasoek seme-alabei, irakasleek ikasleei).

Halere, ikertzen hasita, berehala ohartzen zara haurra hiztun bilakatzeko prozesua ez dela familiara mugatzen, ez eta eskolara ere. Prozesu osoagoa da eta goitik beherako hizkuntza eraginei esker ez ezik ezker-eskuin ere, haur adinkideen arteko harreman horizontaletan ere gertatzen dela. Izan ere, hiztun bilakatzea hizkuntzaz jabetzea baino gehiago, hizkuntzaren bidez gizartean jokatzeko gaitasuna eskuratzea da. Horretaz ariko naiz saioan, *hizkuntza sozializazio* prozesuaz eta prozesu horri eragiten dioten alderdiez.

***- Umeak hazteaz jardungo duzunez, hitzaldia guraso direnentzat bereziki interesgarria izango dela aurreikusi daiteke, baina umearen hazkuntzan beste askok ere izango dute eraginik, ezta? Zenbaterainoko garrantzia daukate agente horiek ume bat euskaldun / ez euskaldun hazteko?***

Egoera soziolinguistikoak baldintzatzen du haurra zer hizkuntzatan hasiko den hizketan eta zein mintzairatan komunikatuko den eroso. Euskaldun hazteko haurrak euskaraz aditzeko eta aritzeko aukera ohikoak eta askotarikoak behar ditu; hau da, euskaraz maiz, usu egiteko aukera eta ez etxean soilik (edo eskolan bakarrik), ahal den gizarte esparru gehienetan baizik.

Horrek, bistan da, etxea eta familia bete-betean hartzen baditu ere, erraz gainditzen ditu eta eskolaldia, eskolaz kanpoko bizipenak eta elkarreraginak, batik bat adinkideen artekoak; hedabideen bidezko hizkuntza *inputa*... biltzen du. Ez da soilik familiaren kontua, baina ikerketetan maiz familia baizik ez dugu kontuan hartu. Beraz, gurasoez gain, maisu-maistrak eta irakasleak; begirale, monitore, entrenatzaile eta hezitzaileak; hizkuntza dinamizatzaileak, normalizatzaileak eta tekni-

kariak… nork bere tokian izanda aurki dezakete interesekorik saioan guztiek baitute zer egin.

***- Orain dela urte batzuk pentsatzen zen eskoletan euskara ezarrita dena egina zegoela, umeek euskaraz ikasi eta euskaldunduta irtengo zirela, baina errealitateak erakutsi digu uste hori okerra zela. Zer gertatzen da euskaraz dakiten askok gaztelaniara jotzeko? Zein iritzi daukazu horren inguruan?***

Duela 50 urte galbidean zen hizkuntza nola berreskuratu ez genekien. Ez zegoen horretarako teoriarik, ez eta eredu egokirik ere. Izan ere, hizkuntzak nola galtzen diren erruz ikertu da eta mintzaira ahulen desagertzeko prozesua anitzez xeheago eta sakonago ezagutzen dugu hizkuntza berreskuratzeko prozesua baino. Euskaltzaleek intuizio edo sen hutsez jokatu zuten (ikastolen sorreran, euskarazko hedabideen bultzatzean…) eta aski ongi jokatu ere.

Baina bide honetan anitz gauza ikasi dugu eta orain badakigu hasieran sinesten genituen axioma batzuk ez direla egia. Orain 50 urte, euskararen berreskuratze soziala gidatzen zuen axiometako bat hau zen: *"Euskara eskolan sartuta, salbatuta egonen da"* (eskoletan, unibertsitatean, administrazioan, parlamentuan…). Bertze bat, honako hau zen: *"Haurrei eskolan euskaraz irakasten bazaie, euskaraz eginen dute eskolatik kanpo"*. Orain hizkuntzaren jabetzeko prozesuaz eta hizkuntza portaerez gehiago dakigula, garbi dugu ikasgelatik plazara hizkuntza portaeren transferentzia automatikoa gertatzea ezin dugula espero,



komunikazio bi esparru desberdinak baitira. Euskara eskolan ikasi duten haurren arteko harreman informaletan euskara nola errotu asmatu nahian gabiltza eta hor dugula erronka erranen nuke.

***- Azken urteotan badirudi euskara ez erabiltzea ume eta gazteei zuzenean lotutako "arazoa" dela, baina erantzukizun osoa ez da eurena bakarrik izango…***

Euskal Herriko hainbat hiri-herritan haur euskaldunak ikasgelatik kanpo erdaraz aritzea egoera ohikoa da. Halaber, euskara bezalako hizkuntza gutxituei zail zaie haurgazte jendeak familian usu egiten ez duen mintzaira, eskolan landua bada ere, ikastetxetik at erabil dezan erdiestea. Ikerketek haur eta gaztetxoen erabilera berezkoa lortu ezina eta horretarako dauden zailtasun handiak erruz aztertu dituzte. Neska-mutikoek elkarren artean bat-batean eta berez mintzaira ahulean egitea da hizkuntza indarberritzeko ahaleginetan lortzea zailenetakoa den emaitza, baina erdiesten delarik zinez esanahitsua.

Adibidez, XIX. mende bukaerako eta XX.aren hasierako hamarkadetan hebreeraren kasu arrakastatsuan horixe izan zen gertatutako *great leap*, jauzi handia hizkuntza indarberritzearen aldera: haurrek ikasgeletan ikasitako hebreera ikastetxetik kanpora, karrikara eta etxeetara, eraman zuten eta beren artean hasi ziren erabiltzen. Neska-mutikoen bat-bateko edo berezko erabilera informala eskolatik at mintzairaren suspertzearen seinale adierazgarritzat jotzen da eta hori gertatzea eta orokortzea lortzen ez delarik, aldiz hizkuntzaren indarberritze ahaleginek beren xedea erdietsi ez dutela uste izaten da. Hala gertatu zen Irlandan XX. mendearen bigarren eta hirugarren hamarraldietan; irlanderaren berreskurapenaren porrota gazte jendeak ikasgeletan ikasi zuen mintzaira eskolaz landara, karrikara eta etxeetara, eraman ez izanari egotzi zaio.

Nik bi kasu aztertu ditut, Irurita eta Iruñea. Iruritako neska-mutikoek jauzi handi hori egin zutela baina Iruñekoek eginkizun dutela erran daiteke. Zerk bereizten ditu bi kasuak? Zertan datza Iruritako haurrak eskolaz landa euskaraz egiten hasi izana eta Iruñekoak aldiz, ez? Ikerketak agertu duen bezala, neska-mutiko batzuek eta bertzeek euskararekin harreman desberdina izan dute familian eta ingurune hurbilean, hau da, hizkuntza sozializazio prozesua ezberdinak izan dituztela batzuek eta bertzeek.



## GUILLERMO SORRIQUETA BARCENA

*2018ko urtarrilaren 8an hil zen*

Ez dugu gaur
zure hitzik entzungo,
baina bai makina bat aldiz
zuk esanak gogoratuko.
Zure hutsunea
ezin da bete. Gure
oroimenean zaitugu.



## FERNANDO BARRUTIA IÑAN

*2018ko urtarrilaren 12an hil zen, 63 urterekin*

Ez dugu gaur
zure hitzik entzungo,
baina bai makina bat aldiz
zuk esanak gogoratuko.
Zure hutsunea
ezin da bete. Gure
oroimenean zaitugu.

# Eibarko kolektiboen GIDA

## ALDATZEN

### Helburuak

ALDATZEN Aldatze Ikastetxeko boluntarioen taldea da. Bertan boluntario lanetan ikasle, guraso eta irakasleak aritzen dira, helburu hauekin: heziketa dela medio, konpromiso sozialaren bidez, boluntarioen aldaketa pertsonala bideratzea; beste erakunde batzuekin (EGOAIZIA GKE, KIDENDA Bidezko merkataritza denda, LAGUN Taldea...) elkarlanean aritzea gizartearen eraldaketan; aldaketa bikoitz honetan beste pertsona batzuei gonbidapena luzatzea.

### Ekintza nagusiak

- Hilero, zapatuetan, hamabostean behin, BIDEZKO MERKATARITZAKO salmenta Toribio Etxebarria kalean.
- Neguan, musikala, LAGUN TALDEArekin elkarlanean.
- Udaberrian, KONTSUMO ARDURATSUAren azoka, EGOAIZIArekin elkarlanean.
- Urrian, BAZKARI SOLIDARIOA, EGOAIZIA eta SOZIEDADEekin elkarlanean.

*E-maila:* *elenaaizpitarte@aldatze.org*
*txarobahillo@aldatze.org*
*Telefonoa:* *943 70 11 50*
*Facebook:* *@ALDATZEN EIBAR*
*Webgunea:* *http://aldatze.org/eu/content/zer-da*



*Urtean zehar hainbat jardueratan hartzen dute parte Aldatzen-eko boluntarioek.*

## EKINGUNE

### Helburuak eta eskainitako zerbitzuak

2012an Debabarreneko ekintzaileen talde batek sortu zuen Ekingune. Elkarte pribatu eta independentea da, sektore anitzekoa eta irabazi asmorik gabekoa. Elkartearen xedea pertsona ekintzaileen arteko lankidetza bultzatzea, enpresa proiektu berriak sendotzea, zalantzak eta arazoak bideratzea eta eskualdearen ekintzailetza-sena sustatzea da. Helburu nagusiak hauexek lirateke: LEHIAKORTASUNA hobetzea; negozioak SUSTATZEA; ekintzaileen interesen ORDEZKARITZA-ORGANOA izatea eta ekintzaileentzako topagune izatea; eta kontaktuen SAREA eratu eta areagotzea.

### Ekintza nagusiak

- SUSTAPENA: Webgunea, gizarte sarea eta azoketan, foruetan eta ekintzailetzarekin lotutako ekitaldietan parte hartzea.
- LANKIDETZA: sinergiak, laguntza, elkarrekin ikastea, proiektuak, “ekintzaileen kuadrilla”.
- SAREAK / NETWORKING: merkataritza harremanak, On Ekin!, elkarEKIN, “porroten gaua”, Transformers, Azkar networking, GabonEKIN…
- PRESTAKUNTZA: beharren diagnosia, ikastaroak, hitzaldiak eta jardunaldiak, pintxo-pote tematikoa.

*Helbidea:* *EibarGunea. Pol. Azitain 3k 2ºl*
*Telefonoa:* *943 20 84 20 / 653 70 91 50*
*E-maila:* *ekingune@ekingune.com*
*Kontaktua:* *Mariella (943 20 84 20) edo Esther (653 70 91 50)*



*Ekingune elkartearen helburua pertsona ekintzaileen arteko lankidetza bultzatzea da.*

**Atal honetan Eibarko elkarte/kolektiboen berri emango dugu astero.**
**Gurekin harremanetan jartzeko: 943-200918 / komunikabideak@etakitto.eus**






**Pedro de Sarasketak** egindako Eibarko Monografiaren hainbat testu kaleratu zituen Ego Ibarrak orain dela urte batzuk "Eibarko Kuadernuak 1" izenburupean. Horko bat Manuel Garateri eskaini zion.

# Bi errebolber hillero: hor dago neurrixa!

Ez zan gauza txikixa izan, Eibarko armen industriaren barruan, sei tiroko zilindrua zeken errebolberren fabrikaziñuaren hasieria. Horren aurreko errebolberra pistoikua zan, eta fabrikatzaillia herrixan genkagun sinpatikuenetakua. Manuel de Garate zan bera, "Mendaro" be deittutakua, bere famelixako aurrekuak pastel ezin gozoaguak egittiarren ospetsu egin diran herri horretakuak ziralako.

Ba Manuel de Garatek orduan sasoian arma barrixa izan zanaren entsaiuak modu berezixan egin zittuan, hala kontau deskueta bere diszipulua izandako batek. *"1835 urtian Don Manuelek agindu zestan altzairuzko barra bateko zatitxo bat mozteko, osatu nahi zeban arma barrixaren zilindrua egitteko. Sasoi hartan katxorrilluak bakarrik egitten genduazenez eta bi tiroko pistolak, eurak be, luxuzko artikulutzat hartzen ziranez, harrittuta begiratu netsan nire maisuari. Baiña lanari ekin netsan eta, zilindrua edo danborra bihurtuko zan altzairuzko zatixa prestatuta nekanian, konpas batekin sei puntu txiki erakutsi zestan, gero zulatzekuak. Orduko hartan erabiltzen genduazen materixalak eta, nire lan perfektuena ez bazan izan be, eskatzen zestazen zuluak egittia lortu neban. Jarraixan, Don Manuelek lima txiki bat hartu eta, dedikaziño haundixarekin, taladruak sortutako akats eta desbardintasun guztiak konpondu zittuan. Handik hamabost egunera probatu ahal izan genduan arma barrixa eta emaitza bikaiña izan zan, edozein neurri hartuta be gaiñetik zeguana".*

Halako batian arma saltzaille bat heldu zan Eibarrera eta, rebolber egin barrixa gustau egin jakonez, Don Manuelek egin zeinkian guztiak erostera konprometidu zan, bakotxarengaittik 600 errial ordainduta. *"Nire maisua ehiza-zale amorratua zan eta, zapatu goizero eskopetia eta bestelakuak hartuta, eskularru berde batzuk hartuta, mendira juaten zan eta handik ez zan bueltatzen astelehen gabera arte".* Eskularruarenak

**"Maisua ehiza-zale amorratua zan, zapatu goizero mendira juan eta astelehen gabera arte bueltatzen ez zana"**



*Manuel de Garate*

gure atenziñua deittu zeban eta, gure komunikatzailliari galdetu gentsagunian zergatixa, harek esan zeskun azaleko arazuak be bazittuala Don Manuelek eta, horrez gain, *"esperantzaren kolorekuak jantzen zittuala beti, berak ikusittakuak behintzat".* Eta jarraitu zeban: *"Eskursiño etengabeko eta luze horren ondorixoz, jabiak gehixenez jota lau egunetan bakarrik egitten zeban biharra astian, eta haren produkziñua (arma mota horretako produkziño guztia Eibarren) hillian bi errebolberrekua zan. Egun batian atenziñua deittu netsan horren inguruan. –Oindiokan ez dakizu zergaittik ez doten gehixago egitten? esan zestan. –Ba ez da gatxa jakittia. Oin egitten dittudan baiño errebolber gehixago egingo baneu, erosliak berihala nahiko zeban preziua merketzia. Eta, jakizu: bihar gehixago egitteko, bardin irabazteko, beti egongo da denporia! Horren aurrian ixil-ixillik geratu nintzan".*

Baiña handik gitxira arazuekin hasi ziran. Saltzailliak eibartarrak hillero fabrikatzen zeben bi errebolberrak erostiari laga zetsan eta, haren eskaeren faltan, hillebetia pasata, konfliktua krisi sakona bihurtu zan, *"biltegixan hiru errebolber pillatuta. Stock horri urteeria emoteko, erabagi heroikua hartu zeban maisuak eta, lehelengoko diligentzia hartuta, Madrillera juan zan hiru errebolberrekin, ea bertan saltzen zittuan. Sasoi hartan ez zan erraza Eibartik Madrillera juatia, aurretik asko pentsatu bihar zan. Madrillera arazo barik iritsi bazan be, handik aurrerakua peregrinaziño latza izan zan Don Manuelentzat. Saltzaille guztiak goittik behera begiratzen zittuen errebolberrak eta, horren aurrian, eibartarrak gorespenak besterik ez zittuan jasotzen. Baiña iñork ez zetsan ordaintzen errebolber bakotxak balio zittuan 600 errialik. Halako batian, ferreterixa batian zeguanian, zainketa-agente bat sartu zan establezimenduan eta, txintik esan gabe, mostradorian zeguazen hórrek hiru errebolberrok hartu zittuan eskuetan eta berarekin eraman, gaizkilletzat hartu zeben Don Manuel kartzelan sartu aurretik".*

**Madrillera arazo barik iritsi bazan be, handik aurrerakua peregrinaziño latza izan zan berarentzat**

Lehelengo errebolberra sortu zeban eibartarra orduan gogoratu zeban Madrillen bazekala lagun bat, eibartarra gaiñera; eta hari bialdu zetsan errekaua, ea bisitia eingo zetsan. Zortzi egun geruago, eta lagun paisanuak egindako gestiñuari esker, eskularru berdietakuak askatasuna eta armak berreskuratu zittuan. Iñork ez zeban jakin zenbatian saldu zittuan pistoidun hiru errebolberrak, baiña egixa berdaderua dana da, bere burua aske ikusi zebanian, Don Manuelek orduan be lehen diligentzia hartu eta Eibarrera bueltatu zala.

Eta Manuel de Garatek 1835ian hillero egitten zittuan errebolber bixak, 70 urte geruago millaka hasi ziran egitten eta askotariko sistema modernuaguak erabilliz. Baiña benetako aitzindarixa biharra neurrixan egitten zeban gizon haundi hura izan genduan!




*Eibarko Kuadernuak publikaziñua*

## Jende Xumea (boluntario taldea)

# "Boliviara bueltatzeko irrikitan gaude"

*Jende Xumea* kooperante taldeko Iratxe Asurmendi, Eva Perosanz, Ainhoa Molinero eta Aitor Arrieta eibartarrek Bolivian igaro zuten uda, hango bi proiektutan lan egiten. Esperientzia izugarria izan da eurentzat eta aurten ere bueltatzeko asmoa daukatela azaldu digute. Azterketak amaitu eta berehala hasiko dira finantziazioa lortzeko ekimenak egiten. Eurekin elkartu gara udan bizi izandakoa hobeto ezagutzeko. *Boliviako esperientzia ikusteko:* **https://www.youtube.com/watch?v=SK9Jj54T-eU**

*– Uztailaren erdialdean irten zineten Boliviaruntz eta uda osoa eman zenuten han. Zer moduz ibili zineten?*

Bost aste eman genituen Santa Cruz de la Sierran, hango haur eta nerabeekin lan egiten. Eibartik gu laurok, Ermuko bat, Zarauzko bi eta bi arduradun joan ginen. Santa Cruz Boliviako bigarren  hiri handiena da eta eraztunetan banatuta dago. Lehenengoa alde zaharra da, bigarrena aberatsena eta kanpora joan ahala pobreagoa da. Gu lehenengoan geunden, La Salleko eskola bateko barnetegi edo umezurztegi moduko batean, han zeuden mutilei (denak mutilak baitziren) laguntzen. Batzuk ez zeukaten familiarik, eta beste batzuk euren etxeetan arazo larriak zeuzkatelako zeuden han.

*– Zertan laguntzen zenieten?*

Gazte hauek, ikasteaz gain, eskolan bertan dagoen inprenta batean egiten dute lan, eta horrek ematen die lanbide bat ikasteko aukera. Tailerrean eurekin egoten ginen, eta baita etxeko lanak egiten ere.14-18 bitarteko gazteak ziren eta askok ez daukate ikasteko ohiturarik. Batzuetan, irakasleak falta zirenean, ingeles edo gimnasia klaseak ere ematen genituen. Ostiraletan jolasak eta gauza desberdinak egiten saiatzen ginen. Igandeetan irteerak prestatzen genituen, etxera joateko aukeratik ez zeukatenei errutinatik irtetzeko aukera emateko. Irteera horietako batzuk parke naturaletara eta leku historikoetara izan ziren, eta guk ere ingurunea ezagutzeko aprobetxatu genuen. Harrituta gelditu ginen. Turista bezala joateko ere oso ondo dago, gauza politak daude, hiriak euren artean oso desberdinak dira, kontraste asko dago. Santa Cruz nahiko okzidentala da eta La Paz-ek  Boliviaren esentziari eusten diola esan daiteke.



*Argazkian, Ainhoa Molinero, Eva Perosanz, Aitor Arrieta eta Iratxe Asurmendi*

*– Santa Cruz-eko beste zona bat ezagutzeko aukera izan zenuten…*

Zortzigarren eraztunean, periferian dagoen gizarte egoitza batean ere jardun genuen. Proiektu horren izena "Plataforma" da eta La Salletik kanpo dago. Horko errealitatea oso desberdina zen, kaleak asfaltatu gabe, ia dendarik ez, estolderia arazoak… Han izan genuen Boliviako jendearen zati handi baten errealitatea ezagutzeko aukera. Egoitza horretan haurtzaundegi bat dago, bazkaria ematen zaie haur txikiei eta, ondoren, adin desberdinetako haur eta gazteak agertzen dira eskolatik irtetzerakoan. Eurei ere bazkaria ematen zaie eta etxeko lanak eta tailerrak egiteko txoko bat daukate. Haur eta gazte horien errealitatea oso bestelakoa da, askorentzat hango janaria egun guztian zehar jaten zuten bakarra zen. Nagusientzako  ere tailerrak daude: josteko, mermeladak egiteko, elektrizitate lanak ikasteko… gutxieneko zerbait ikasteko aukera ematen zaie. Era askotako lanak egin genituen han: sukaldean lagundu, paretak margotu, psikomotrizitate gela prestatu... Dena dela, gauza bat argi ikusi dugu: daukatenarekin zoriontsu izateko gaitasuna daukatela eta beti daudela bata besteari laguntzeko prest. Aurtengo udan bueltatzeko asmoa daukagu. Aurten gure taldeari ez zaio tokatzen joatea, baina gure kabuz joateko ahalegina egingo dugu. Laster, azterketak amaitzerakoan, ekimenak prestatzen hasiko gara finantziazioa lortzeko, berriro joan ahal izateko. Pertsonalki hazteko asko balio du eta guztiz gomendagarria da. Boluntariotzan lan egin nahi izanez gero, proiektu mordoa dago eta boluntarioak beti dira ongietorriak.

San Andres Gozotegia
• tartak
• enkarguak
etxera
Bidebarrieta, 28
☎ 943 20 79 73

Radio Eibar
CADENA SER
104,0 FM

Izadi
LORADENDA
– Lora eta landare natural eta lehorrak
– Ezkontzetarako lorak
San Juan, 1 Tel. 943 20 33 29

# Jon Martinezek irabazi du BooktuberBoom lehiaketako lehen edizioa



**Gazteen artean irakurzaletasuna sustatzeko asmoz Eusko Jaurlaritzako Liburutegi Zerbitzuak** eta Galtzagorri Haur eta Gazte Literatura Elkarteak elkarlanean antolatutako BooktuberBoom lehiaketaren sari-banaketa ETB1eko "Gure Kasa" programan egin zen aurreko asteko eguaztenean eta epaimahaiaren saria Jon Martinez eibartarrak eskuratu zuen. Epaimahaiko kideen berbetan, Eibarko booktuber gazteak *"naturaltasun handiz ematen ditu azalpenak eta booktube baten helburua lortzen du, liburua irakurtzeko gogoa piztea, alegia"*. BooktuberBoom lehiaketaren lehen edizio honetako sari banaketa egiteko tartea lagatzeaz gain, "Gure Kasa" saioko lagunek egitasmoari buruz berba egiteko aukera eman zieten lehiaketako antolatzaileei. Galtzagorri elkartea ordezkatzen Antton Kazabon idazleak jardun zuen eta, Booktuberboom lehiaketaren helburua zein den primeran azaltzeaz gain, epaimahaiaren saria banatzeaz arduratu






zen. Izan ere, Jon Martinezek aurkeztutako booktubea Kazabonek idatzitako "Erotik" liburuan dago oinarritua. Bestalde, publikoaren saria Erkuden Kamiruaga laukiztarrak jaso zuen.

BooktuberBoom egitasmoarekin 14-18 urteko bitarteko gazteen artean irakurzaletasuna sustatu nahi dute eta EAEko Liburutegi Sarearen bidez ipini zuten martxan. Horren harira, eta eibartar gazteak lehiaketan parte hartzera animatzeko, urrian saio berezia egin zuten Juan San Martin liburutegian, Iban Garcia youtuberrarekin.

– SUKALDEAK
– BAINUAK
– ETXEKO ALTZARIAK

ASKETA
ERAIKUNTZAKO ZERBITZU INTEGRALA
SERVICIO INTEGRAL DE OBRAS



PROMOZIO BEREZIA
%10eko deskontua
ALTZARIETAN

Galdetu baldintzak dendan

Errebal, 16 943-509027 asketa.mueblesdica.es lorentzo.asketa@gmail.com




Arte martzialen munduan sartu zen txikitan eta munduan zehar ibiltzea ahalbidetu dion modalitatea aurkitu zuen orain dela urte batzuk Jon Montielek. Capoeirak espresatzeko modu bat eskaintzen dio eta astearteetan klaseak ematen ditu Eibarren, *"ume zein helduei"*. Abenduaren 2tik 12ra Iranen egon zen capoeiraren bitartez segregazioaren arazoari aurre egiten. Esklabuek sortutako artea izanik, capoeirak izaera askatzailea daukalako.

# JON MONTIEL
## (capoeirista):
# "Capoeira nire bizitzaren parte handia bihurtu da"

*- Nola sortu zitzaizun Iranera joateko aukera?*

Orain dela hamalau urte inguru hasi nintzen capoeira egiten eta Senzala taldearen barruan nago. Rio de Janeiron (Brasil) dauka basea taldeak, baina mundu osoan zehar dago banatuta eta gure taldeko koordinatzailea Cambridgen (Ingalaterra) bizi da. Alde batetik bestera bidaiatzen ibiltzen gara eta talde bakoitzak bere topagunea antolatzen du urtero. Kasu honetan Iranekoek topagunea antolatu zuten eta joatea pentsatu genuen.

*- Zergatik erabaki zenuten joatea?*

Segregazioaren arazoa dago Iranen. Herrialde islamikoa da eta lege santua daukate, xaria. Emakumezko eta gizonezkoek ezin dute elkarrekin entrenatu, eta jendaurrean dantza egitea debekatuta dago. Legeak dituzte, baina norberak nahi duena egiten du gero. Hori bai, ezkutuan. Segregazioaren aurkako lehen topagune ofiziala antolatu genuen. Emakumezko irakaslea eraman nahi genuen emakumezkoei klaseak emateko, baina pasaportearekin arazoak izan zituen eta bost atzerritar joan ginen azkenean, hiru neska eta bi mutil. Gurekin joandako emakumezkoek hango emakumeei klaseak eman zieten, eta guk gizonezkoei.

*- Beraz, ez zenuten bertako legea apurtu?*

Beti dago legeari itzuri egiteko modua, baina ofizialki ez genuen legea hautsi. Sare sozialak moztuta daude Iranen eta ahoz aho enteratzen dira hainbat gauzataz, baina zaila da horri jarraipena ematea. Beti bilatzen dute bidea gauzak egiteko. Adibidez, Facebook berez debekatuta dago, baina badaukate.

*- Nolako esperientzia izan da?*

Zoragarria! Alde batetik, beste herrialde bateko capoeiristekin entrenatzeko aukera izan genuen; eta bestetik, bertako jendearekin turismoa egin genuen. Turista arrunt batek ikusten dituen tokietatik haratago eraman gintuzten.

*- Capoeira ezberdin bizi dute Iranen?*

Euren informazio iturria gurea baino murritzagoa da. Ni topagunetik topagunera nabil herrialde ezberdinetan eta talde asko ezagutzeko aukera daukat. Eurek Youtuben hala nola aurkitzen dutena eta gure irakasleak bidaltzen diena dute oinarri, ez daukate beste ikuspegirik. Beraz, gu bertara joan ahal izatea garrantzitsua izan da eurentzat. Zazpigarrenez antolatu dute topagunea Iranen, baina emakumeek parte hartzen duten lehen aldia izan da. Aurrera egitera eta borrokatzera animatu nahi izan ditugu emakumeak, euren eskubideak lortu ahal izateko.

*- Esklabuek sortutako arte martziala izanik, izaera askatzailea dauka capoeirak?*

Gure irakasleak asko nabarmendu zuen hori Iranen. *"Capoeira horrela jaio zen"* aipatzen zuen, sasoi batean capoeira debekatuta egon zelako baita ere. Jende guztiak Iranera ez joateko esaten zion irakasleari, baina berak atzera begiratu zuen eta Brasilen gertatukoa gogoratzen zion Irango egoerak, eta joatea proposa ikusi zuen.

*- Orain dela pare bat aste Irango hainbat protesten berri eman ziguten hedabideek. Zerbait ikusteko aukera izan zenuen?*

Hedabideek ematen diguten informazioa eta han gertatzen dena oso ezberdina da. AEB-ren aurkako kartel eta mezu asko dago han, baina nik ikusi dudanaren arabera, mugitu naizen zirkuluan antzeman dudana gutxienez, legea eta estatua gauza bat dira eta jendea beste kontu bat da. Guztiz ezberdina. Jendeari ez zaizkio herrialdeko hainbat gauza gustatzen, aldaketak nahi dituzte eta aldaketak ematen ari dira. Ez da honen berri eman, baina manifestazioen ondorioz emakumeek hijaba eramateko derrigortasuna kendu dute. Nire irakasleak hori esan dit behintzat. Saudi Arabia eta Iranen arteko lehia antzeko bat dago. Batek emakumeei gidatzen uzten badie, besteak hijaba eramateko obligazioa kentzen du. Jendea lege horien aurka dago eta euren bidea topatzen du nahi duena egiteko, baina gobernua ez da inozoa. Jendeak egiten duena badaki eta pixkanaka zabaltzen ari dela uste dut. Irekiera hori erakusten duen parametro bat Iranera dagoen hegaldi kopuruaren hazkundea da. Hori bai, oso turista gutxi ikusi nuen.

*- Zergatik capoeira?*

Kirola egiteko, kultura bat ezagutzeko (Brasilgo kultura oso

aberatsa delako), hizkuntza bat ikasteko (erabiltzen ditugun abestiak portugaldarrez direlako) eta bidaiatzeko aukera ematen duelako. Capoeira nire bizitzaren parte handia bihurtu da.

*- Nola hasi zinen capoeiran?*

Modan zegoelako. Tekken 3 bideo-jokoa irten zen eta bertako pertsonaia batek capoeira egiten zuen, eta batukaden eta Carlinhos Brownen bolada zen. Brasildar bat ezagutu nuen Eibarren, capoeira egiten zuela esan zidan eta berarekin hasi nintzen. Berak utzi egin zuen eta, ni judoan ari nintzenez, Kalamua taldean capoeira klaseak sartu genituen. Gero Txinara joan nintzen eta hemengo taldea desagertu egin zen, baina nik capoeirarekin jarraitu dut egon naizen toki guztietan. Bueltan Senzala Euskadirekin hasi nintzen Zumaian eta zortzi urte daramatzat eurekin.

*- Brasilera joateko aukera izan duzu?*

2010ean zazpi astez egon nintzen. Capoeiraren muinera joatea modukoa izan zen. Bertara joateko ametsa neukan eta heldu nintzenean demaseko sentsazioa izan zen.

*- Ezberdin bizi dute capoeira han?*

Capoeira brasildarra dela diote, baina korronte batek dio capoeira mundukoa dela. Brasilera joan gabe capoeira egiteko aukera asko daukazu toki askotan, eta Brasilgo irakasle oso onak Europa edo AEBra joan dira.

*- Nolako ekintzak antolatzen dituzue Eibar inguruan?*

Esklaboen borroka izanik, capoeiran ez dago legerik. Badaude kirola ofizialdu nahi dutenak, baina ni ez naiz horren aldekoa.



*Teheraneko Azadi dorrean capoeira egiteko aukera izan zuen Jon Montielek.*





*Emakumezkoak eta gizonezkoak ezin dira elkarrekin entrenatu Iranen, Montielek adierazi zigunez.*

Lehia sartu nahi dute, Olinpiar Jokoetan aritu, baina askatasunetik sortu den arte bati hesiak jartzen badizkiozu, bere esentzia galduko du. Beraz, hemen ez dugu txapelketarik antolatzen. Urtero topaketa bat egiten dugu Euskadi mailan eta, egunerokoan, Eibarren klaseak ematen ditugu astearteetan. 5 eta 7 urte bitarteko ikasleak aritzen dira 17:30etan Adara zentroan, 18:45ean Lehen Hezkuntzako 3. mailatik DBHko 2. mailara arteko umeak egoten dira Mogel institutuan, eta 19:30ean 15 urtetik gorakoen txanda izaten da, toki berean. Izena eman nahi duenak nire telefonora deitu dezake (637 552 948) edo Adhara zein Mogel institutura hurbildu zuzenean.

*- Nolabaiteko dohainak behar dira capoeira egiteko?*

Capoeira gorputzaren espresioa da, eta ez da espresatzen berdin 3 urteko ume bat edo 50 urteko gizon edo emakume bat; ezta 100 kiloko pertsona bat edo 40 kilo dituena. 100 kilorekin ez ditut jauzi mortalak egingo, baina ez daukat horren beharrik. Gorputzaren espresioa da eta elkarren arteko elkarrizketa. Denborarekin zure izaera sartzen duzu capoeiran.



# I. URTEURRENA

## Maria Solozabal Antxia (2017-I-12)
## Alejandro Aranburu Irastorza (2017-I-18)

**“Mallabiko zerutik, Galdaramiñoko tontorreraiño, badakigu gugatik hurran zaoziela”** -ETXEKOAK-

**EUREN ALDEKO MEZA IZANGO DA DOMEKAN, URTARRILAREN 21EAN, 12:00ETAN, SAN ANDRES ELIZAN.**



Aspaldittik datorren kontua da, baiña oin arte asmo izatetik pasau ez dana. Azken aldixan batzuk, gaixari soluziñua emon bihar jakola siñestuta, proposamena be egin dabe toki egokixena gure herrixan bertan dakagula esanaz, baiña hori ez dabe hain argi ikusten udal-ordezkarixak eta arazuak beste konponbide bat premiña dabela diñue. Bittartian badago bihar bat *"eskualde maillan bete biharrekua"*. Gaiñera, abenduaren 31tik aterpetxiarena eskubide subjetibua bihurtu da, bateren batek eskatu ezkero soluziño egokixa biharko dabena.



*Santaiñes kaleko mojen komentua hutsik dago 2009ttik.* **Felix Morquecho**

# Aterpetxia: eskualdian bete biharrekua

Mende barrixan sartu giñanetik alberge edo aterpetxiaren gaixa mahai gaiñian izan dabe instituziñuak. 2006xan, esaterako, Benjamin Atutxa sasoi hartan Eibarko Gizarte Zerbitzuetako ziñegotzixak hainbat aukera aurrikusi zirala azaldu zeban, *"baiña iñork ez zebala aurrera jotzeko aukerarik eskindu"*. Horren aurretik, Gipuzkuako Diputaziñuak ekimena bultzatu nahi izan zeban Elgoibarren, orduan Guillermo Garate alkatia zala, baiña horrek be kale egittian, Eibarri proposau zetsan asmua errealidade bihurtzia. Egon zan Egogain gerontologikuaren hegal bat aprobetxau eta bertan egitteko ideia be, baiña toki faltagatik baztertu zan. Orduan sortu zan be oin proposatutako Santaiñes kaleko komentuaren aukeria aztertziarena.

Sasoi hartan etxerik gabekuendako Gipuzkuako aterpetxe bakarra Donostian zeguan, eta hara juaten ziranak ezin zeben hiru egun baiño gehixago egin bertan. Gurera etortzen ziran transeunte edo ibiltarixak Caritasera jotzen zeben batez be, eta han zeozer jateko balia emoten zetsen.

## Irabaziren proiektu izarra

Maria Jesus Agirre gure herrixan Irabazik dakan ziñegotzi bakarrak jo ta su dabil Santaiñeseko komentuak eskintzen dittuan aukeren alde egitten. Berak diñuan moduan, *"aurrekontueri begira be, azkenian enmienda partzialak atzera bota biharko dittugu eta osotasunari jartzera derrigortuko gaittue. Debabarrenian Mutrikutik Eibarreraiño ez dakagu aterpetxe bakar be, eta sozialistak aittatu daben Debako peregrinuenak ez dau balixo funziño horretarako. Transeunten aterpetxia beste modu batian gestionatu bihar da"*. Mojen komentua toki ezin aproposagua ikusten dau Agirrek: *"Baiñuak, jangelia, jendia hartzeko espazio haundixa... dana daka. Eta erreza da egoki prestatzia, aurpegixa pixka bat garbitziarekin nahikua da"*. Mojekin baiño administradoriakin izan dau berak arazo gehixen: *"Mojekin berba egin dotenian ez dot jarrera itxirik nabarittu. Baiña administradoriak, taxistia bera, tokixa ikusteko aukeria be ez desku emon Irabazikuori. Pentsa, udal artxibora juan bihar izan dot komentuaren ezaugarrixak jakitteko!"*.




*Eibarren edo beste herri baten, baiña Debabarrenan aterpetxia bihar da.*

Komentuarena espropiaziño bidian badago be, oin momentuan holako zerbitzu bat emoteko ezin aproposagua dala uste dabe Irabazin: *"Eskualdiak bete biharreko zerbitzu hori ointxe bertan izan geinke, horren premiñan daguan jendiari bihar dan aterpia eskintzeko"*, diñue. Horretarako, *"hillebeteko edo hiruhillebeteko alokairua"* proposatzen dabe, *"bi lagunen kontratoziñuarekin batera: formaziño soziala dakan bat enpresia kudeatzeko eta beste bat sukaldiaz eta garbiketiaz arduratzeko"*. Izena be ipiñi detse aterpetxiari: "Etxe-On".

## Ipuruako komentuan ezin leike

Miguel de los Toyos alkatiak diñuanez, *"Eusko Jaurlaritzak bere sasoian onartutako Zerbitzu Sozialen Mapan, beste gauza askoren artian, aterpetxiarena be aurreikusten zan eskualde bakotxian betebiharreko esparruen artian. Hor dagoz be pisu tutelatuak, eguneko zentruak... Baiña erabagi hori komunian hartu biharrekua da, instituziño ezbardiñen artian; eta zerbitzu horrek modu eraginkorrenian betetzeko billerak egitten dira, gaixa ez dakagu baztertuta"*. Eibarrek, eskualdeko buru izan arren, ez dauka derrigorrez zerbitzu hori bere gain zertan hartu, baiña alkatia ez dago horreta-





*2016ko urrian egindako zenbaketan herriko talde askok hartu zeban parte, eta boluntarixuak be ez ziran gitxi izan. Beheko argazkixan, euretako ordezkari bi Gizartekintzako ziñegotzixarekin eta arlo bereko teknikarixekin.*

ra itxitta; hori bai, mojen komentuarena baztertzen dau: *"Irabazikuak duan izango zala esan zeskuen eta mojen kongregaziñuak ez desku gauza bera esan. Eurak espropiaziño edo desjabetzera bultzatzen gaitue eta aldibaterako alternatiba moduan ez dogu ikusten. Gaiñera, Plan Nagusixan jasotzen dan moduan, mojen terrenua dominio publikorako ikusten bada be, kirol erabillerako dala esaten da"*. Eta, horren inguruan, oin dala gitxi herrixan burututako Kirol Plan Estrategikuan terreno horrek aldamenian daken Ipuruako Kiroldegixaren osagarritzat be jo zeben.

Alkatiak aterpetxiaren alde daguala diño, *"kostuari eskualdeko herrixekin komunian aurre egiñaz. Baiña, horretarako, eraginkortasun erizpidiak hartu bihar dira kontuan"*. Hori bai, abenduaren 31tik bateren batek aterpetxia eskatzen badau, *"derrigortuta gagoz zerbitzu hori emotera, eskubide subjetibua sortu dalako. Eskualdiak halakorik ez badetsa eskintzen, logela bat ordaindu biharko detsa"*.

**Irabazik Ipuruako konbentua aproposa ikusten dau aterpetxerako eta oin dala une egokixa uste dau**

### Kalian lo egitten dabenen datuak

2016ko urriaren amaieran kalian lo egitten zeben kale-neurketia egin zan Eibarren lehelengoz, *"Eusko Jaurlaritzak hiru urte lehenagotik gizartiak baztertuta lagatzeko arriskuan zeguakizenen inguruko ikerketen barruan"*. Ordura arte hiriburuetan bakarrik egindako kale-neurketia 24 herrittara zabaldu zan, *"azterketako emaitzak EAE-ko populaziñuaren %65 inguru ordezkatuko zebelakuan"*.

Nepaldarren alkartetik, Senegaldarren alkartetik, Kaleratzeak Stop plataformatik, Egoaiziatik, ikasliak... 22 boluntarixo ibilli ziran azterketia egitten gurian. Eguaztenetik eguenera bittarteko gabian herriko kalietan ibilli ziren boluntarixuak, taldeka, kalian lo egitten jenderik zeguan ala ez begiratzen eta, batenbat aurkittu ezkero, nahi bazeben galdetegi bati erantzuteko eskatzen zetsen. Egun zihatz hartan Eibarren lau lagun aurkittu zittuen kalian lotan, andrazko bat eta hiru gizonezko eta, eurengana jo zebenian boluntarixuak arazorik ez zeben izan eta galdetegixari erantzuteko prest egon ziran laurak.

Urriaren 26tik 27rako gabeko 22:00etatik 02:00xetara egindako zenbaketaren arabera, Euskadin bizitegi bazterketa larrixa daken 285 lagun dagoz kalian lo egitten. Zenbaketa hori biztanlego osuaren %65 barne hartzen daben EAEko 24 udalerrittan egin zan. Esaten dabenez, planeta osuan hazten dihardUen bizitegi-bazterketa edo *homeless* fenomenua Euskadin be gertatzen da. EAEko udalerri nagusiñetako hamarretan Eusko Jaurlaritzak 2014an sustatutako gabeko zenbaketaren arabera, 323 lagun kalian eta 1.513 lagun etxerik gabekuari eskindutako bizitegi-baliabide publikoren batian egitten zeben lo. Zenbatutako pertsona guztien artian, 297 Araban aurkittu zittuen (%16,2), 904 Bizkaian (%49) eta 635 Gipuzkuan (%34,6).

Protokolo horretan finkatutakuaren arabera, aurten beste zenbaketa bat egin biharko da, Jaione Azkue udal gizartekintzako teknikarixak diñoskunez: *"Bi urtetik behin egittia aurrikusten zan-eta. Datuak, dana dala, zirkunstantzialak dira, egun batekuak zehazki. Egun batetik bestera gauzak aldatu leikiazela jakinda be, bai erakusten dabela momentu bateko egoeria"*. Berak diñuanez, Jaurlaritzaren Zerbitzu Sozialen Mapak gidatzen dittu bazterkerixia saihesteko ahalegiña, eta laguntasuna bihar dabenen aldeko neurrixak horren arabera hartzen dira.

Egunian zihar Eibarko erdiko kalietan jendia eskatzen ikusten bada be, asko eguneroko toki finkuetan, egixa esateko gabian ez dira hamen geratzen. Halanda be, Untzaga aldian bada gabaz egunero lo egitten daben bat edo beste.

Udaltzainguan, bestalde, bertatik pasatzen dan transeuntiari *"eurak aukeratzen daben hiriburura juateko billetia eta janarixa hartzeko balia emoten jakue"*. Bale horrekin herrixan zerbitzu hori eskintzen daben bi tabernetako batera juateko aukeria dake eta, billetiari dagokixonez, *"behin bat jasota, urtebete pasatu bihar da pertsona berak beste bat eskatzeko"*. Urtian egoera horretako 300 bat lagun pasatzen dirala uste dabe, *"egunero bat gitxi gorabehera, eta, azken aldixan, atzerritarrak gehixago estadutik baiño"*.



**MALEN JAINAGA:** "Txontako fabrikak".



*Aitziber Urkiolak 29. postuan amaitu zuen.*

## Eibarko atletek ere hartu zuten parte afrikarrak nagusi izan ziren Mugertza Krosean

**Maila handiko parte-hartzea izan zuen aurreko domekan Elgoibarren jokatutako** Mugertza Nazioarteko Krosaren 75. edizioak. Horrelakoetan gertatzen den moduan, afrikarrek erakutsi zuten beste behin zergatik dituzten dituzten markak eta atleta asko laga zituzten lasterketatik kanpo, itzuli bateko aldea errekuperatu eta gero. Urtetik urtera atleta berriak kokatzen dira lehen mailan eta, oraingoan, 17 urteko Selemon Barega etiopiarrak irabazi zuen gizonezkoen seniorretako proba. Emakumezkoetan Ruth Jebet bahreindarra nagusitu zen. Azken proba horretan Klub Deportiboko Aitziber Urkiola 29. postuan helmugaratu zen, eta Baregak irabazitakoan Pello Osoro 58. izan zen. 20 urtez azpikoen emakumezkoen mailako lasterketan Mireia Arietaleanizbeaskoak 41. postuan amaitu zuen, 18 urtez azpiko gizonezkoen mailan Eneko Osoro 18. helmugaratu zen eta, azkenik, 16 urtetik beherakoen artean, Jone Acuña eibartarra 37. postuan iritsi zen helmugara.




## Tenis txapelketa indibiduala Unbe Tenis Klubaren eskutik

**Unbe Tenis Klubak Eibarko Tenis Txapelketaren edizio berria** antolatu du. Indibidual modalitatean jokatuko da eta izena emateko azken eguna hilaren 26a izango da. Torneoan parte hartzeko 20 euro ordaindu beharko dira eta, Unbera deitzeaz aparte, izena honako telefono zenbakietan eta helbideetan eman daiteke: 615758420 (libargutxi@gmail.com) eta 635708128 (iker ezkerra@hotmail.com).

## Waterpoloko Euskal Herriko Kopako finalerdia jokatuko da domekan Orbea kiroldegian

**Waterpoloko Euskal Herriko 1. mailan jokatzen duten Urbat-Urkotronik** senior mailako bi taldeetatik, gizonezkoenak Kopako finalerdietara heltzea lortu zuen aurreko asteburuan eta finalerdia jokatuko du Leioa WLB-ren aurka etzi eguerdian, Orbea kiroldegian 13:15ean hasiko den neurketan. Emakumezkoen taldeak 4-6 galdu zuen Bidasoa XXI-ekin.




## Igerilari txikienak ere lehiaketetara egokitzen

**Eibar Igerixan taldeko igerilari gazteenek euren indarrak neurtu eta lehiaz gozatzeko** aukera berria izango dute bihar Legazpiko igerilekuan, han hartuko baitute parte aurtengo hirugarren txapelketan. Alebin mailakoek, berriz, Azkoitiko igerilekuan izango dute jardunaldia. Zorte on, neska-mutilok!



**MANUEL ALONSO ZUBEROGOITIA**

*I. URTEURRENA: (1931-IX-11 / 2017-I-5)*

***Egunak joan, egunak etorri, edozer dela-eta,***
***noiznahi zaitugu gogoan, Manolo.***
***Eta horrela izan dadila.***

# Eibarrek txirrindulari taldeari eutsiko dio hurrengo denboraldian ere

**Eibarko Klub Deportiboak elite mailako 23 urtetik beherako taldea osatu** eta Espainiako Txirrindularitza Federazioan inskribitu du "Eibar Energia Hiria Debabarrena" izenarekin. Taldeko hainbat txirrindularik dagoeneko hasi dute denboraldia, batez ere neguko aktibitateetan, eta emaitza onarekin gainera. Horrela, Anoetako belodromoan jokatzen ari den pista modalitateko Open mailan Eibarko taldeko Urko Senperena da liderra, zazpi jardunaldi jokatu ondoren, lehen jardunaldian irabazi eta ordutik galdu ez duen postuan. Ziklo-krosean ere ez dira atzean geratu eibartarrak, eta Mikel Mujikak Oñatin jokatutako 23 urtetik azpiko Gipuzkoako txapela jantzi zuen; hori gutxi ez, eta Mujikak berak ere irabazi zuen Ormaiztegin maila berean.



*Debabarrenako Urko Senperena nagusi da pistan.*

# Eibar FT-ren harrobiak denboraldi bikaina dihardu egiten

**Talde nagusienen indar erakustaldiarekin batera (1. Mailan jokatzen duen gizonezkoen taldeak** 8. postuan amaitu du lehen itzulia eta 2. Mailan diharduen emakumezkoena puntu bakarreko tartean dagoen goiko hirukotean da, 1. Mailara igotzeko asmoa baztertu gabe), jokalari gazteagoak dituzten harrobikoek ez dira atzean geratu eta indartsu dihardute ia maila guztietan. Emakumezkoen Lurralde Mailako taldeak azken jardunaldian ekin dio igoera faseari, Hondarribian 0-2 irabazita eta Erregional Gorengoen Mailako Eibar Urko bigarrena da sailkapenean, liderrarengandik hiru puntura. Jubeniletan, Ohorezko Maila Nazionaleko taldea seigarren dago, eta bigarren taldea, probintziako Ohorezkoan jokatzen duena, lider sendoa da, ihesi eginda; multzo horretan dagoen Urki 6. postuan dago. Kadeteetan, Euskadiko Ligako ordezkaria 9. postuan da, eta probintziako Ohorezkoan jokatzen duen bigarren taldea laugarren da gaur egun; nesken Ohorezko mailan jokatzen duen taldea bigarren postuan dago, liderraren ondo-ondoan. Eta infantiletan Eibarko taldeen nagusitasuna ia erabatekoa da: horrela, Ohorezko Mailakoa liderra da, alde handiarekin, eta Infantil Txikikoa ere goi-goian dago. Maila horretan Urkiko neskak ere ez dira atzean geratzen: 1. Mailan jokatzen duen bigarren taldea liderra da eta Ohorezko Mailan diharduen talde nagusia zortzigarren dago.



*Jubeniletako bigarren taldeak garaipenak pilatu eta pilatu dihardu.*

# Herriko xake taldeek Liga hasi dute

**Aurreko zapatuan jokatu zuten ligako lehen jardunaldia Eibarko Klub Deportiboko** ordezkari biek eta, etxean jokatzen zuena erraz nagusitu bazen, ez zuen zorte bera izan Donostiara joan zenak. Lehen mailako talde horrek 2,5-1,5 galdu zuen Easo B-rekin; 3. Mailakoak, aldiz, hobeto jardun zuen eta 3,5-0,5 irabazi zion Eibarren Azpeitiko Xaputarrak taldeari. Asteburu honetan bigarren jardunaldia jokatuko da: 1. Mailako taldeak Hernani hartuko du deporren eta 3. Mailakoa Azkoitira joango da, han Anaitasuna-Kakute B-ri aurre egiteko. Herriko talde biek ez dute aldaketa handirik egin denboraldi berriari begira eta, horrela, talde nagusiak jokalari beteranoekin jokatuko duen moduan, 3. mailakoak azken urteetan xake eskolatik pasatu diren gazteekin lehiatuko da, azken hauendako bigarren denboraldian.






# Kalamuakoak arrakastaz Andorran

**Aurreko asteburuan Andorran jokatutako infantil mailako nazioarteko torneoan** han aurretik izan gabeko gaztetxo askok ordezkatu zuten Kalamua kluba eta oso pozik itzuli ziren lortutako emaitzekin. Andorrako printzerriko Hantei klubak antolatutako torneoan Koldo Estenagak, Alex Jimenezek eta Maren Martinekin urrezko domina eskuratu zuten, eta zilarrezko eta brontzezko launa domina gehiago ere lortu zituzten beste judoka batzuk. Bestalde, Manu Agirrek defentsa pertsonaleko ikastaroa eman zuen Andorran "ateak zabalik" antolatutako ekitaldian eta, izandako arrakastarekin lotuta, otsailean han izango da berriro.

## Athletic-ek baino hiru egun gutxiagoko atsedena izango du Eibarrek San Mameserako



Eibar FT azkena izango da bigarren itzuliko lehen jardunaldia jokatzen, astelehen gauean hartuko baitu Malaga Ipuruan, 21:00etan hasiko den partiduan; eta, aldi berean, eibartarrak lehenak izango dira bigarren jardunaldiari ekiten, aste bereko barixakuan jokatu beharko dutelako San Mamesen. Gainera, Athletic-ekoek aipatutako bi jardunaldi horietan barixakuan jokatuko dutenez, eibartarrek baino hiru egun gehiago izango dute neurketa prestatzeko.

### Atxabalpe 2021era arte

Eibarrek jarraituko du erabiltzen urte horretara arte lehen taldearen entrenamenduetarako. Akordio hori sinatu zuten martitzenean Amaia Gorostiza klubeko presidenteak eta Maria Ubarretxena Arrasateko alkateak. Beste ekipamenduen artean, Atxabalpek belar naturaleko bi zelai, aldagelak, gimnasioa, prentsa-bulegoa eta jantokia ditu gaur egun.

## Euskadiko ziklo-kros txapelduna hirugarren izan zen Espainiakoan

**Aitor Hernandez ermuarrak ezin izan zuen aurreko asteburuan Legazpin jokatutako Espainiako txapela** bereganatu eta brontzezko dominarekin konformatu behar izan zuen, helmugan aurrea hartu baitzioten Ismael Estebanek (honek iaz lortutako txapela berretsi zuen) eta Felipe Orts-ek. Specialized-Ermua Impulso taldeko txirrindularia irabazlearengandik minutu batera iritsi zen helmugara. Aurretik, baina, ermuarrak bosgarren aldiz jantzi zuen Euskadiko txapela Arabako Izarran jokatutako proba irabazi eta gero. Lasterketa horretan ondo nagusitu zen Hernandez eta bigarren itzulitik jo zuen aurrera bakarrik, hor laga zituen-eta atzean berarekin podiuma osatuko zuten Gorka Izagirre errepideko profesionala eta denboraldian aurkari zuzena izan duen Javier Ruiz de Larrinaga. Garaipen horrekin bederatzi lortu ditu Aitorrek denboraldi honetan eta, emaitza horiei esker, otsailaren 4an Herbehereetako Valkenburg herrian jokatuko den Mundialerako txartela eskuratu du.



## Ourense hartuko du Eibar Rugby-k etzi eguerdian

**Ohorezko B mailan jokatzen duen gizonezkoen lehen taldeak garaipen zaila** bezain garrantzitsua lortu zuen Zarautzen sailkapeneko bigarren postuan dagoen Babyauto Zarautzi 24-32 gailenduta. Modu horretan, eibartarrek bost puntu ekarri zituzten kostaldetik zale kopuru polita bildu zuen partiduan. Gizonezkoen bigarren taldeak 22-15 irabazi zion Uribealdeari Unben jokatutako Euskal Ligako 2. mailako norgehiagokan. Emakumezkoen Euskal Ligako taldeak, bestalde, garaipen argia eskuratu zuen Durangoren kontra eta sailkapeneko bigarren postuan jarraitzen du, La Unica liderraren atzetik. Asteburu honetako partiduei dagokienez, talde nagusiak Ourense hartuko du Unben domeka eguerdian (12:30) eta gizonezkoen bigarren taldeak eta beteranoenak kanpoan  jokatuko dute bihar: lehenengoak Gasteizen Gaztediren aurka, eta Putrezaharrak Iruñean hango La Unicari aurre egiteko.

centro médico eibar
URKIZU PASEALEKUA, 13
Orbeako dorreak / 1. solairua
☎ 943 12 02 00 Faxa: 943 12 02 04

1) Kardiologia
2) Zirugia
3) Dermatologia
4) Dietetika / Nutrizioa
5) Analisi Klinikoak
6) Ortodontzia
7) Otorrinolaringologia
8) Pediatria
9) Psikiatria
10) Barne Medikuntza
11) Radiologia
12) Urologia
13) Traumatologia
14) Koloproktologia
15) Erizaintza
16) Foto-depilazio Unitatea
17) Ginekologia BERRIA
18) Psikologia BERRIA

Funeraria·Ehorztetxe
Mugica
EIBAR

Beilatokia
Funeuskadi Eibar:
Otaola, 27
ELGOIBAR

Beilatokia:
SIGMA Industrialdea
(Olasoko hilerriaren ondoan)
Bulegoa Eibarko erdialdean


24 orduko zerbitzu iraunkorra
943 20 19 51 www.funeuskadi.com
Euskadiko Lehen Ehortze Taldea
GRUPO Funeuskadi

Lehen diskoan sugeak harrapatu zituen, baina denborak berak urte gehiago behar izan zituen *Cancer Moon* taldearen musikaren sasoira iristeko. "Gehiegi, eta goizegi", titulua jarri zion *Rockdelux* aldizkari famatuak musika-talde honen errepasoa egiten zuen artikuluari. Estatuko musikan mugarria jarri zuen **Josetxo Anitua** eibartarraren eta **Jon Zamarripa**ren taldeak, baina sasoi hartan mundua ez zegoen horretarako prest. Goizegi zen.







# Denboran aurreratuak zirenak GOGORATZEKO MOMENTUA

Alvaro Fierro gaztetxoa zen bere anaia nagusiak *Cancer Moon* taldearen diskoa etxera ekarri zuenean. "*Oso arraroa egiten zitzaidan, ez nuen ezer ulertzen*", onartzen digu. Denbora pasa zen eta txikitan arrotzak egiten zitzaizkion doinuak barneratzen hasi zen, "*musika ulertzen*". Cancer Moonen zale egin arte. Kontu horrek hainbat gogoeta eragin zizkion eta Cancer Moonen musika denboran aurreratuago zegoela ondorioztatu zuen. "*Jendearekin kontsultatu eta galderak egin genituen, eta tesi horrekin bat zetozela konturatu ginen*". Ibon Ibarlucea eibartarrarekin egin zuen ikerketa hori, eta orain musika-talde honi buruzko eta, batez ere, abeslariaren inguruko dokumentala burutu dute.

Josetxo Anituak Jon Zamarriparekin sortu zuen *Cancer Moon*. Josetxok bere estilo pertsonal markatuarekin abesten zuen bitartean, Jonek gitarra maisutasunez jotzen zuen. "*Magia sortu zen eurak biak elkartu zirenean*", dio mirespenez Fierrok. 60. hamarkadako Eibarren jaio zen Josetxo eta horrek artista moduan markatu zuela



*Dokumentalaren egilearen arabera, Josetxo Anitua transformatu egiten zen eszenatoki gainean.*




*Hilaren 25ean, 20:30ean, emango dute dokumentala Coliseoan.*

ziurtatzen du zuzendariak. *"Lan eta lan egitea oso barneratuta dago Eibarren idiosinkrasian, eta berak kontzientzia hori industriatik musikaren arlora eraman zuen".* Dokumentalean bertan Josetxoren esaldi *"polit"* bat agertzen da horren inguruan. *"Iltze berarekin pareta berean behin eta berriz jotzea bezalakoa da",* eta hortik zerbait berezia irteten da, Fierroren ustetan.

## Eibar izaeran barneratuta

Josetxoren jaioterria izanik eta bere izaeran hain barneratuta egonik, Eibarrek protagonismo handia dauka hilaren 25ean 20:30ean Coliseoan aurkeztuko den *'Atrapados por la serpiente'* lanean (taldearen lehen diskoko izenburuaren itzulpena da, *'Hunted by the snake'). "Eibar hiri ikaragarria dela iruditzen zait"*, dio Fierrok zintzotasunez. "'Eibar industrial' *dokumentala ikusi genuen, eta lehen eta oraingo irudiak ikusten dira, baina ia ez dago alderik"*.

Eta nola irteten da hiri industrializatu batetik horrelako musika ezberdina egiten duen gazte bat? *"Dokumentala egiteko ikerketa prozesuan ikusi genuen nahiko ohikoa zela industrialen seme-alabak Londresera joatea ingelesa ikastera, bueltan gurasoen negozioekin jarraitzeko".* Bada musika anglosaxoia entzun eta ulertzeko erabili zuen Josetxok Shakespearren hizkuntza, eta musikarekiko zuen interes horrek Jon Zamarripak zuenarekin egin zuen bat.

Bilbotarra da Jon eta dokumentalean lehen pertsonan kontatzen ditu *Cancer Moon* eta Josetxo Anituarekin izandako bizipenak. Gitarrajolearen anaia hegazkin-pilotua zen eta munduan zehar bildutako diskoak ekartzen zizkion etxera. Beraz, Fierroren ustetan, *"bere heziketa musikala ezberdina zen"*.

## Inorena ez den lurraldean

Euskal Herritik eta estatutik kanpoko influentziak izanda, logikoa da emaitza hemen inguruan egiten zenarekiko ezberdina izatea. *"Oso talde undergrounda zen eta denbora pasa bada ere, euren musika arraroa da, berezia"*. Dokumentalaren egileak azaltzen duen bezala, *"80. hamarkadako taldeak hiltzen hasi ziren, beste belaunaldi bat hasi zen jaiotzen beste musika batekin eta eurak trantsizio sasoi horretan aritu ziren"*. Inorena ez den lurrean geratu ziren. Aditu eta zale asko bat datoz denboran aurreratuak izan zirela ziurtatzean eta, aldi berean, *Cancer Moonek* gindakoa goraipatzen dute. Kultu-taldea bihurtu da.

*Cancer Moonek* ez zuen zorte handirik izan arlo komertzialean, baina euren eragina hedatu eta beste talde asko sortu ziren euren ildoari jarraituz. *"Euren zeharkako influentzia gaur eguneraino heldu dela pentsatzea gustatzen zait"*, dio Fierrok. Ofizialki inoiz agurrik esan ez bazuten ere, 1995. urtearen inguruan eten zuen taldeak bere ibilbidea. Zuzendariak nekeari egokitzen dio uztearen arrazoia eta bere ustez gauza bera gertatu zaie munduko %95 taldeei. *"Historia unibertsala da"*.

## Presentzia boteretsua eta berezia

*Cancer Moonen* inguruan zeuden perspektibak handiak ziren eta Josetxo Anitua estatuko *frontman* (taldeko liderra) onena zela aipatzen zuen kritiko askok. *"Baieztapen hori gehiegizkoa izan daiteke, baina presentzia boteretsua zeukan"*. Sasoi hartan musikari onak zeudela dio Fierrok, *"baina Josetxo berezia zen"*. Berak gauza bat argi dauka. *"Rockaren munduan gauza bat gertatzen da: egiten duzun horretan sinesten duzu edo ez. Sinesten ez baduzu, barregarri geratzen zara; baina Josetxok benetan sinesten zuen"*. Eszenatokitik kanpo, ordea, lotsatia zen Josetxo. *"Bere lagun batek, Xabier Arakistainek, dokumentalean aipatzen du Elgoibarren kontzertu batean elkar ezagutu zutela eta Ian Curtisen itxura zuela iruditu zitzaiola"*.

*Joy Division* taldearen liderrak bezala, Josetxok ere utzi egin gintuen. Hala ere, bere memoriak inoiz baino biziago dirau eta dokumental honetan agerian jartzen da artista eibartar honek musikari eta bizitzari eskaini ziona. Ibon Ibarlucea eta Alvaro Fierro zuzendariek Josetxoren anai-arrebekin batera eskuz esku egin dute lan dokumentalaren sorkuntzan, *"eta emaitza asko gustatu zaie"*. Zalantzarik gabe, hilaren 25eko emanaldia berezia izango da guztiontzat. *"Oso berezia eta hunkigarria izango da dokumentala Eibarren aurkeztea"*.













RAFA RODRIGO
(papiroflexian aditua)

# “Papiroflexia umeentzat dela uste okerra da”

Berbetan programaren baitan, urriaren 27an (zapatua), papiroflexia eta origami tailerra eskainiko du Rafa Rodrigok ...eta kitto! Euskara Elkartearen lokaletan. 10:30ean hasi eta 12:30ak aldera amaituko den tailerra haur zein helduentzat bideratutakoa izango da. Tximeletak, beltxargak, sobreak, loreak.. denetarik egin daiteke paperarekin eta saioa taldearen nahietara moldatuko du alor horretan aditua den Rafa Rodrigok.

*- Noiz eta nola hasi zinen papiroflexia munduan?*

Orain dela hamaika urte hasi nintzen. Nire lagun batek origamiari buruzko liburu bat zeukan bere kotxean eta atentzioa eman zidan. Aipatu nion eta oparitu zidan, berak ez baitzuen ezer lortzen liburu horrekin. Egun batzuk geroago “engantxatua” nengoen.

*- Eibarko saioan zer erakutsiko duzu? Nori zuzenduta egongo da?*

Horrelako saio batek hiruzpalau gauza plegatzeko aukera ematen du. Beti taldearen nahietara moldatzen saiatzen naiz. Gauza politak, praktikoak edo barregarriak egin daitezke, esate baterako, tximeletak, beltxargak, bihotz putzgarriak, sobreak, diruzorroak, txoriak, loreak, kutxak, salto egiten duten igela famatuak… Praktikatu baino lehen, diziplina aurkeztuko dut erakusketa txiki batez lagunduta. Nire tailerrak guztientzat dira, papiroflexia umeentzat dela pentsatzeari utzi behar diote helduek.

*- Disziplina ezaguna da? Jende askok praktikatzen du?*

Disziplina ezaguna da, baina gainetik bakarrik. Origamia mundu bat da, joera eta mota desberdinak daude, artistikoak, matematikoak, ultrakonplexuak, minimalistak, figuratiboak, abstraktuak, teselazioak, origami modularrak… tailerretan azaltzen ditut adibideak erakutsiz. Geroz eta jende gehiago praktikatzen du, baina oraindik gutxiengoa da nire ustez.

*- Ze material mota erabiltzen duzu zure lanetan?*

Papera eta kitto! Paper arruntarekin gauza asko egin daitezke. Hala ere, sakondu nahi badugu hautaketa oso inportantea bihurtzen da eta paper bereziak bilatu behar ditugu.

*- Zer nolako gauzak egin daitezke?*

Denetatik tolestu daiteke, benetan! Intsektuak egin daitezke hanka, hegal eta antena guztiekin edo arrainak haien ezkatekin, baina abstraktuak diren estruktura interesgarri asko tolestu daitezke ere. Kurbak dituzten gauzak lortzen dira ere, eskultura antzekoak edo maskarak… Satelite batzuen eguzki panelak desplegatzeko eta berriro plegatzeko, origami teknikak erabili izan dira!

*- Zergatik dira gomendagarriak halako saioak?*

Origamiren mundua ezagutzeko parada polita eskaintzen dutelako, harritzekoa izan daitekeelako horrelakoetan ikasten dena. Momentu atsegina pasatzeaz gain, parte-hartzaile guztiak ateratzen dira eurek egindako eta oparitu ahal izango dituen paperezko detaile polit batzuekin.

## Ume eta helduendako artile-tailerra emango dute eguaztenean ...eta kitto!-n

**Illunabarrian egitasmoaren baitan artile-tailerra antolatu du ...eta kitto! Euskara Elkarteak urtarrilaren 24rako** (eguaztena), 18:30etik 20:30era, elkartearen lokalean (Urkizu, 11 solairuartea). Helduek zein umeek har dezakete parte Alluitz Naturaren eskutik egingo den tailerrean eta izena emateko …eta kitto! Euskara Elkartera joan edo 943200918 telefonora deitu daiteke. Kuota 3 eurokoa da.

Tailerrean artile desberdinen arteko ezberdintasunak aztertuko dira eta eman dakizkiekeen erabilera ezberdinen inguruan jardungo dira bertan. Artile desberdinak identifikatu ondoren kardatu egingo dituzte. Horrela, artisau ekoizpenean murgiltzeaz gain, artile desberdinen berezitasunak ikusteko aukera ere egongo da. Eta behin artilea kardatuta eta orraztuta, artisau ekoizpen ezberdinen artean aukeratu ahal izango da: artile bisuteria sortzeko teknikak landu; fieltro edo “nuno” tekniken bidez mural edo janzki zabalak ekoitzi; dekoratzeko zein beste erabilera batzuetarako objektuak sortzea (landareak, poltsak, loreontziak…); edo, artileaz baliatuta, elementu isolatzaileak egitea. Amaieran, taldekideek egindakoa etxera eramateko aukera izango dute.





## Pellak eta torradak egiten ikasteko tailerra

**Munduko sukaldaritzaren inguruko tailer-zikloaren baitan, pellak eta torradak** nola egiten diren ikasi nahi dutenentzat tailerra antolatu du …eta kitto! Euskara Elkarteak. Sukaldaritza klaseak Berbetan eta Ongietorri Berbetan egitasmoko kideentzat prestatu dituzte bereziki, baina toki guztiak betetzen ez badira gainontzeko guztientzat zabalduko dute izenematea. Tailerra urtarrilaren 30ean (martitzena) eta 31n (eguaztena) izango da, Portaleko sukaldean, 18:00etan hasita. Izena emateko 943200918 telefono zenbakira deitu edo ongietorri@etakitto.eus helbidera idatzi.



## "Alicia después de Alicia" lana taularatuko du gaur Kabia Teatrok

Kabia Teatrok "Alicia después de Alicia" antzezlana eskainiko du gaur 20:30ean Coliseoan. Borja Ruizek zuzendutako lan honetan Haizea Aguila, Florentino Badiola, Karol Benito, Yolanda Bustillo, Maria Gorizelaia, Javier Liñera eta Juana Lor antzezleek jardungo dute taula gainean. Agertokian irudien animazioak eta antzezleen interpretazioak bat egingo dute, Alizia izeneko biolinista baten barneko munduan murgitzeko. Sarrerak 10 euro balio du (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin).



## San Blas opilak egiteko ikastaroa eta lehiaketa antolatu du Kulturalak

Arrate Kultur Elkarteak San Blas egunaren harira ikastaroa eta lehiaketa antolatu ditu. Opilak egiteko ikastaroa urtarrilaren 27an izango da, 11:00etatik 13:30era Portaleko sukaldean. Informazioa eskatzeko eta izena emateko Arrate Kultur Elkartera jo daiteke zuzenean edo, bestela, 638284912 telefonora deitu edo arratekultu@gmail.com helbidera idatzi. Lehiaketa, berriz, San Blas egunean (otsailaren 3an) egingo da: parte hartu nahi dutenek etxean egindako opilak Topalekuan aurkeztu beharko dituzte, 11:00etatik 13:30era.

## Poesia saio bi Itzamna tailerraren eskutik

Itzamna Poesia Tailerraren eskutik bihar Alberto Rodrigo poetaren "Las cosas que nunca te dije" lanaren aurkezpena egingo da Itzamma akademian (Bittor Sarasketa, 2). Saioa 18:00etan hasiko da eta sarrera librea izango da. Eta datorren asteko zapaturako, berriz, afari poetiko-musikala antolatu dute Chalcha jatetxean, 21:00etan. Poesiari musikarekin laguntzen Alberto Luis Egiak (pianoa) eta Danel de Pradok (saxofoia) jardungo dute.




## Matrikulazioa zabalik euskaltegietan

Euskera ikasi nahi dutenentzat matrikulatzeko epea zabalik dago Eibarko euskaltegi bietan: Udal Euskaltegian otsailaren 2ra arte egongo da matrikula egiteko aukera, Portaleko 2. pisuan, bulego ordutegian (08:30etik 14:00etara eta 16:30etik 19:00etara). Informazio gehiagorako 943700912 telefonora deitu daiteke. Eta AEK-n, berriz, euskaltegira joan (Sostoatarren, 1), 943201379 telefonora deitu edo eibar@aek.eus helbidera idatzi daiteke. Bietan maila guztiak eta ordutegi zabala eskaintzen dute.

## Martxoaren 8ko kartel lehiaketa

Eibarren Martxoaren 8ko egitarauaren eta kanpaniaren irudia izango den kartela aukeratzeko lehiaketa dago martxan. Lanak aurkezteko epea otsailaren 5ean amaituko da eta informazio gehiagorako Pegorara edota Andretxeara jo daiteke.

**Idoia Astiz Astigarraga**

***10. URTEURRENA (2008-I-23)***



***"Orain dela hamar urte joan zinela, baina bizi garen artean beti gogoan izango zaitugu"***





EKHI BELAR

## Datorren astean San Mamesera

Olentzerok Eibar San Mamesen ikusteko sarrera ekarri zidan eta datorren astean joango naiz Katedralera. Bilbao Athleticen aurka horrelako zelai batean jokatzea 1. mailan aritzetik hurbilena da guretzat. Eskurza, Larrazabal eta beste lehoi-kume batzuk ikusi ditut Kirolez Kirolen, eta onak dira. Eibarren partiduaren laburpena ez zuten eman, bideoa ez omen zelako iritsi. Beti berdin.

Amarekin eta soziedadeko lagun batzuekin joango naiz trenean. Gurean Peña Rodriguezekoak dira. Aitari ez zaio futbola asko gustatzen, nahiago du mendira joatea, eta amarekin joaten naiz Ipuruara.

Laster Espanyol etorriko da eta N'kono ikusteko aukera izango dut. Ez da nire egun berean urteak betetzen dituelako bakarrik, oso ona delako eta praka luzeekin jokatzen duelako gustatzen zait. Garmendia ere berezia da niretzat, ez pentsa.

Beste egunean penaltia sartu nion Garmendiari. Utzi egingo zen? Nire lagun Jonekin sarritan joaten naiz Anexora, eta bere aita presidentea denez Eibarko jokalariak bere lagunak dira eta eurekin jolasten dugu.

Taldean ez dago atzerritarrik, baina Ipurua parean bizi naizenez leihoan egoten naiz partidu egunetan, eta arerioen busa heltzen denean nortzuk etortzen diren ikusten dut. Atzerritarrik badago, beldurra! Onak izaten dira.

Azken finean meritu handia dauka Eibarrek. Bigarren mailan egotea asko da guretzat. Berez egokitzen zaiguna baino gehiago. Beti sufritzen gabiltza, baina azken momentuan salbatzea lortzen dugu. Aurten zaila izango da, azkenak goaz orain, baina normaltzat hartu behar dugu. Gozatu dezagun!

# Martxan da helduentzako Bertso Eskola Eibarren




**Ikasturte honetan helduen taldea antolatzea lortu du Hankamotxak bertso eskolak,** eta herriko bertsolazaleak parte hartzera animatu nahi dituzte. Astean behin, eguaztenero batzen dira Arrate Kultur Elkartearen goiko lokalean, 19:30ean. Sortu berri den taldea zerotik ekin dio bertsogintzari eta, beraz, ez da inolako mailarik eskatzen, *"bertsolaritza gustoko izatea besterik ez"*. Bertso eskolatik adierazi dutenez, *"bertsoaren egitura ezberdinak, errima arauak, neurriak eta doinuez gain, bertsolaritzaren munduko beste alor batzuk ere jorratuko dira, adibidez, gaiak nola jarri edo txapelketetako epai irizpideak. Idatzizko zein bapateko bertsolaritzaren oinarriak irakatsiko dira, beti ere lagunarteko giro batean. Helburuak ikasle bakoitzak jarri beharko dizkio bere buruari, izan daiteke bertso bat bapatean botatzeko gaitasuna lortzea, edo besterik gabe, asteazkenero herriko beste bertsozaleokin elkartu eta euskal giro sano batean tarte atsegin bat igarotzea"*. Bertso eskola doakoa da, ez da izen ematerik ordaintzen eta *"zalantzan egon ezkero, onena eguazten batean Kultun agertu eta bertso eskolak nola funtzionatzen duen ikustea da"*. Helduen taldeaz gain, gaztetxoen bertso eskolak martxan jarraitzen duela gogorarazi nahi dute. 10-14 urteko gazteak barixakuero elkartzen dira Portalean, 18:00etatik 19:30era. Informazio gehiago jasotzeko hankamotxak@gmail.com helbidera idatzi daiteke. Eta Eibarren bertsolaritzari lotuta egiten direnen berri izateko, berriz, Twitteren @hankamotxak jarraitu.

# Koldo Carranza eta Amaia Otaola eibartarren lanak erakutsiko dituzte XV. Laburbiran

**Datorren otsailean abiatuko den XV. Laburbiraren kartela osatzeko** eibartar biren lanak aukeratu dituzte: Koldo Carranzaren "Ilunpetan" eta Amaia Otaolak, Oihane Zunzunegirekin batera sortutako "Higadurak".




Bi horiek euskarazko film laburren zirkuituan izango dira, beste sei lanekin batera. Antolatzaileek 2017an zehar jasotako proposamen guztien artean, zortzi film labur aukeratu dituzte; bat ezik, beste guztiak 2017koak dira eta zortzi filmen artean 77 minutuko proiekzio entretenigarria osotu dute publikoari eskaintzeko: "Ilunpetan" (Koldo Carranza), "Night Shift" (Izaskun Arandia), "Higadurak" (Oihane Zunzunegi eta Amaia Otaola), "Ejecutor" (Javi Arriaga), "Tazan" (UDA films), "Areka" (Atxur animazio taldea), "Kreba" (Oier Fuentes) eta "Zulo (Erika Olaizola eta Amancay Gaztañaga). Laburbirak otsailaren 28tik martxoaren 28ra bitartean erakutsiko ditu hemen eta euskaraz sortutako laburmertraiak, herriz-herri.

# Danborradaren kontzertua domekan Coliseoan

**Bihar San Sebastian eguna dela eta, domekan Danborradari eskainitako** kontzertua hartuko du Coliseo antzokiak, 12:30ean. Urtero emanaldia antolatzen duen Usartza Txistulari Taldearekin batera Eibarko Danborradako ordezkari talde batek eta Molto Vivace metal boskoteak hartuko dute parte. Betiko moduan, egitaraua osatzeko Eibarko zein beste herri batzuetako danborradetako pieza ezagunak aukeratu dituzte eta aurten, berritasun gisa, Raimundo Sarriegiren "Comparsa de Caballeria de Viejas" kanta eskainiko dute.



## Asteburuan jaiak izango dira ELORRIXAN

Elorriaga (Deba) auzokoek ekintzaz betetako hiru egun dauzkate aurretik, gaurtik hasita domekara arte ospatuko dute eta San Sebastian eguna. Bihar San Sebastian ermitan meza egin eta gero, Flysch txakolina eta pintxoak dastatzeko aukera egongo da auzoko plazan. Jarraian idi-proba hasiko da eta, ondoren, herri-bazkaria egingo dute. Arratsaldean Lau Haizeta Elkartean txokolatada egingo dute eta gauean, berriz, afaria Urberu erretegian, Izer eta Alabier trikitrilariekin. Domekan meza ondoren plazan txakolina edango da eta, jarraian, zaldi proba hasiko da. Jaiak agurtzeko bazkaria antolatu da Jon Maia, Julio Soto eta Amets Arzallus bertsolariekin.



## Ernesto Barrutiaren lan berria bihar DURANGON

Bihar aurkeztuko du Ernesto Barrutia aktore eibartarrak bere lan berria: "El tanguito de mamá". Ernesto Lecuona musikari kubatarraren inguruko antzezlana Durangon estreinatuko dute, 20:00etan San Agustin kulturunean. Kukulan konpainiaren eskutik taularatuko da lana eta sarrerak 8 euro balio du.

## eguraldia (EUSKALMET.NET)




## hildakoak

- **Juan Mª Berraondo Etxebarria.** 74 urte. 2018-I-10.
- **Manuela Rodriguez Fernandez.** 88 urte. 2018-I-11.
- **Lurdes Garitagoitia Ziarsolo.** 68 urte. 2018-I-11.
- **Rosa Martin Gutierrez.** 91 urte. 2018-I-12.
- **Jose Antonio Madariaga Iraunzegi.** 66 urte. 2018-I-12.
- **Encarna Garate Lasagabaster.** 96 urte. 2018-I-12.
- **Isaias Gonzalez Isla.** 89 urte. 2018-I-12.
- **Francisco Beristain Albizu.** 81 urte. 2018-I-12.
- **Fernando Barrutia Iñan.** 63 urte. 2018-I-12.
- **Teresa Torres Lopez.** 84 urte. 2018-I-14.
- **Jesus Saiz Barcena.** 89 urte. 2018-I-15.
- **Angel Osua Cuevas.** 89 urte. 2018-I-15.
- **Eduardo Aranburu Azkonaga.** 73 urte. 2018-I-15.
- **Mª Rosa Retenaga Susaeta.** 92 urte. 2018-I-15.
- **Carmen Idiakez Perez.** 86 urte. 2018-I-17.
- **Enrike Zubiaurre Ezenarro.** 86 urte. 2018-I-17.

## jaiotakoak

- **Sophia Sala Santos.** 2018-I-9.
- **Osaosemnen Daniel Mohamed.** 2018-I-13.
- **Anas El Ouahabi.** 2018-I-14.

## farmaziak

Barixakua 19
EGUNEZ **Elortza** (J. Gisasola, 18)
Zapatua 20
EGUNEZ **Iraundegi** (Calbeton, 19)
Domeka 21
EGUNEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
Astelehena 22
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)
Martitzena 23
EGUNEZ **Zulueta** (San Agustin, 5)
Eguaztena 24
EGUNEZ **Mandiola** (San Agustin, 3)
Eguena 25
EGUNEZ **Castaño** (J. Etxeberria, 7)
Barixakua 26
EGUNEZ **Azkue** (T. Etxebarria, 4)

GAUEZ BETI -2018AN-
Lafuente (Sostoatarren, 10)

## SUDOKUA

AURREKOAREN EMAITZA

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 8 | 7 | 1 | 6 | 5 | 2 | 9 | 3 | 4 |
| 3 | 9 | 4 | 1 | 7 | 8 | 2 | 5 | 6 |
| 5 | 6 | 2 | 9 | 4 | 3 | 1 | 8 | 7 |
| 4 | 8 | 7 | 3 | 1 | 9 | 6 | 2 | 5 |
| 2 | 3 | 9 | 4 | 6 | 5 | 7 | 1 | 8 |
| 1 | 5 | 6 | 2 | 8 | 7 | 4 | 9 | 3 |
| 9 | 2 | 8 | 7 | 3 | 6 | 5 | 4 | 1 |
| 6 | 1 | 3 | 5 | 2 | 4 | 8 | 7 | 9 |
| 7 | 4 | 5 | 8 | 9 | 1 | 3 | 6 | 2 |

| | | | | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| | | 8 | | | | 9 | 4 | |
| | | | 6 | 8 | | | | |
| 5 | | | | | | 3 | | |
| | | | | 9 | | | 2 | 4 |
| | | 2 | 5 | | 8 | 1 | | |
| 3 | 9 | | | 7 | | | | |
| | | 6 | | | | | | 7 |
| | | | | 1 | 5 | | | |
| | 3 | 4 | | | | 5 | | |

## telefono jakingarriak

SOS deiak................................*112*
Pegora......................................*010*
Udaletxea..................*943 70 84 00*
Portalea.....................*943 70 84 39*
Udaltzaingoa.............*943 20 15 25*
Mankomunitatea.......*943 70 07 99*
Debegesa..................*943 82 01 10*
KIUB..........................*943 20 38 43*
Epaitegia...................*943 03 34 00*
Iberdrola....................*901 20 20 20*
Naturgas...................*902 12 34 56*
DYA Larrialdiak.........*943 46 46 22*
Gurutze Gorria..........*943 22 22 22*
Mendaro osp.............*943 03 28 00*
Anbulategia...............*943 03 25 00*
Torrekua....................*943 03 26 50*
Errepideak.................*902 11 20 88*
Ertzaintza..................*943 53 17 00*
Eusko Tren................*902 54 32 10*
Lurraldebus...............*900 30 03 40*
Pesa..........................*900 12 14 00*
Taxiak........................*943 20 30 71*
.....................................*943 20 13 25*
Alkohol.Anon............*629 14 18 74*
Al-Anon/Alateen........*650 26 59 63*

## Barixakua 19

### ALTXORRAREN BILA
**18:00.** Altxorraren bila, 8-11 urte bitartekoentzat. Doan. Jazinto Olabe ludotekan.

### ANTZERKIA
**20:30.** *"Alicia después de Alicia"* (Kabia Teatro). 10 euro (7 euro Coliseoaren Laguna txartelarekin). Coliseo antzokian.



## Zapatua 20

### ASTELENA HAUR PARKEA
**11:00/14:00 eta 16:30/ 20:30.** 2-12 urte bitarteko umeentzat. 3 euro (doan EMGI-ko txartelarekin). Astelena frontoian.

### DANTZA-JAIALDA
**17:30.** *"¡Diga 33!"*, Lagun Taldearekin. Hezkuntza Esparruan.

### UMEENDAKO ZINEA
**17:30.** *"Ballerina".* Sarrera doan. El Corte Inglesean (ekitaldi aretoan).

### KIROLA FAMILIAN
**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

### POESIA SAIOA
**18:00.** Alberto Rodrigo poetaren *"Las cosas que nunca te dije"* lanaren aurkezpena, Itzamna Poesia Tailerraren eskutik. Sarrera librea. Itzamna-n (Bittor Sarasketa, 2).

## Domeka 21

### KONTZERTUA
**12:30.** Danborradarena, Eibarko Danborradaren, Molto Vivace metal boskotearen eta Usartza Txistulari Taldearen eskutik. Coliseo antzokian.



### KIROLA FAMILIAN
**17:30/19:30.** Ume eta gurasoentzat jolasteko gunea (2-5 urtekoentzat). Ipurua kiroldegian.

## Astelehena 22

### BIDEO-FORUMA
**18:30.** *"Las reinas negras de Meroe".* Pagatxa emakume taldeak antolatuta. Portalean.



## Martitzena 23

### IKASTEN
**10:00.** *"Karlistadak Euskal Herrian XIX. Mendeko Gerra Zibilak"* hitzaldia, euskeraz, Mikel Alberdi, Zumalakarregi Museoaren zuzendariaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.



### IKASTEN
**16:00/19:00.** Punto-tailerra.
**17:00/20:00.** Joskintza-tailerra. Portalean.

### HAMAIKA BERBALDI
**19:00.** *"Umeak euskaldun haztea helburu"* hitzaldia, Paula Kasares soziolinguistaren eskutik. Eibarren AKEBAIk antolatuta. Portalean (areto nagusian).

## Eguaztena 24

### TAILERRA
**18:30.** Artile tailerra, Alluitz Naturaren eskutik. …eta kitto! elkartearen lokaletan.

### EIBARKO KANTUZALEAK
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

## Eguena 25

### IKASTEN
**10:00.** *"Viajando por el mundo con mi hijo"* hitzaldia, Juanma Murua, EHUn Ekonomia eta Enpresa Zientziatan lizentziatuaren eskutik. Sarrera librea. Armeria Eskolan.



### KALEETAN KANTUZ
**17:00.** Dantza (beheko maila).
**18:00.** Dantza (maila altua).
**19:30.** Abesbatzaren entsegua. San Andres elizako lokaletan.

### ODOL-EMATEA
**18:30.** Odol-emaileentzat odola ateratzeko saioa. Anbulatorioan.

### DOKUMENTALA
**20:30.** *"Atrapados por la serpiente"* (65') eta solasaldia Alvaro Fierroren eta Ibon Ibarlucea lanaren egileekin (60'). 5 euro. Coliseo antzokian.



## Erakusketak

**Urtarrilaren 28ra arte:**
- "EIBARKO KOLOREAK". ***(Armagintzaren Museoan)***

**Urtarrilaren 31ra arte:**
- SONIA ALVAREZEN ARGAZKIAK. ***(El Ambigú tabernan)***
- UZTARGI KLIK (JOSE MIGUEL BILBAO, JAVIER GUINEA, JUAN J. SALAS, SEVE SANCHEZ, PACO VALDERAS, PRIMI VILLALTARENA) TALDEAREN ARGAZKIAK. ***(Portalea tabernan)***

**Otsailaren 4ra arte:**
- "NOROSUR O) (O" MIGUEL ANGEL PEDROZA OCHOAREN ESKULTURAK. ***(Portalean)***
- "SEÑALES DEL RUIDO" FRANCISCO ALONSO SEVILLAREN ARGAZKIAK. ***(Portalean)***

**Zure senide edo lagunen bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 4 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena, 8 euro (bazkideentzat %20ko deskontua). Argazkia eta testua eguaztena baino lehen egon beharko da ...eta kitto!-n. Hemendik aurrera zorion-agurrak etakitto.eus webgunean ere argitaratzeko aukera daukazue. Prezioak bertan kontsultatu ditzakezue.**

laztanak emoten...
943 20 09 18
publizitatea@etakitto.eus



Zorionak, INTZA!, martitzenian 3 urte bete zenduazen-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Manexen partez.



Zorionak, NADIA, atzo 9 urte egin zenduazen-eta. Famelixaren partez.



Zorionak, LEIRE, hillaren 8xan 3 urte bete zenduazen-eta. Musu haundi bat etxekuen partez.



Zorionak, ALAIN, haraiñegun 13 urte egin zenduazelako. Laztan haundi bat zure gurasuen partez.



Zorionak, ION, martitzenian urtiak beteko dozuzelako. Ondo-ondo ospatu! Musu eta besarkada bat lagunen partez.



Zorionak, IKER, abenduaren 29xan 5 urte egin zenduazelako. Musu haundi bat etxeko guztien partez.



Zorionak, NAHIA, datorren martitzenian 6 urte beteko dozuz-eta. Musu haundi bat aitatxo, amatxo eta famelixaren partez.



Zorionak, LUKA, gure gizontxuak bixar 6 urte egingo dittu-eta. Patxo haundi bat famelixaren eta, batez be, Aneren partez.



Zorionak, MAIALEN, gaur 6 urte betetzen dozuz-eta! Patxo haundi bat etxekuen eta, batez be, Uxueren partez.



Zorionak, AITXA, zapatuan urtiak betetzen dozuzelako. Musu bat Ainara, Aner eta Iñakiren partez.



Zorionak, etxeko morroskuentzat! HARITZ (urtarrillaren 23an, 18 urte), KOLDO (urtarrillaren 18xan, 9 urte) eta ALAIN (urtarrillaren 15ian, urtetxua). Musu haundixa famelixaren partez.

## zineaColiseoan

**(1 ARETOAN)**
**20an:** 19,45, 22:30
**21ean:** 20:00
**22an:** 20:30

**"Entre ellas"**

*Zuzendaria:* Solange Cicurel




**(2 ARETOAN)**
**20an:** 17:00, 19,45, 22:30
**21ean:** 17:00, 20:00
**22an:** 20:30

**"El extranjero"**

*Zuzendaria:* Martin Campbell




**(ANTZOKIAN)**
**20an:** 17:00(1), 19,45, 22:30
**21ean:** 17:00(1 aretoa), 20:00
**22an:** 20:30

**"Thi Mai. Rumbo a Vietnam"**

*Zuzendaria:* Patricia Ferreira




**(ANTZOKIAN)**
**20an:** 17:00
**21ean:** 17:00 **(EUSKERAZ)**

**"The Jungle Bunch"**

*Zuzendaria:* David Ataux



# iragarkilaburrak


**1. ETXEBIZITZA**
1.1. Salgai
1.2. Errentan
1.3. Konpartitzeko
1.4. Etxe trukaketa

**2. MOTORRA**
2.1. Salgai

**3. LOKALAK**
3.1. Salgai
3.2. Errentan

**4. LANA**
4.1. Lan bila
4.2. Langile bila

**5. IRAKASKUNTZA**
5.1. Eskaerak
5.2. Eskaintzak

**6. DENETARIK**
6.1. Salgai
6.2. Eman
6.3. Galdu/Aurkitu
6.4. Bestelakoak


**943 20 09 18**
**publizitatea@etakitto.eus**

i Atal honetako iragarkiak **doan** dira, etxeen, lokalen, autoen eta irakaskuntzako eskaintzen kasuan izan ezik. Azken horietako PREZIOAK honakoak dira: Etxeak, lokalak eta garajeak: alokatu, 12 euro; saldu, 17 euro. Autoak eta irakaskuntzako eskaintzak: 12 euro. Doako iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez. Iragarki guztiak **etakitto.eus** webgunean ere argitaratuko dira.

## 1. Etxebizitza

### 1.1. Salgai

– Apartamentua salgai edo alokagai Polonia Etxeberria 14, behean. Estreinatzeko. Tel. 649-935239.

### 1.2. Errentan

– Pisua behar da Eibarren, konpartitzeko, edo gela errentan. Tel. 660-114801.
– Pisua, edo gela, hartuko nuke Eibarren alokairuan. Tel. 632-139806.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren edo inguruan. 2/3 logelakoa. Tel. 632-337083.
– Pisua hartuko nuke alokairuan Eibarren. Tel. 602-463828.

## 3. Lokalak

### 3.1. Salgai

– Pabilioia salgai Elgetan (935 m.), instalazio guztiekin: koadro elektrikoa, ur beroa, aire-sistema. 240.000 euro. Tel. 605-712852.

### 3.2. Errentan

– Gazteendako lokala alokatzen da Jardiñeta, 34an. Jarduerarako lizentziarekin. Inguruan etxerik gabe. Instalazio berriak. Aireztapena eta argi naturalarekin. Tel. 656-756485.

## 4. Lana

### 4.1. Lan bila

– Gizonezkoa eskaintzen da eraikuntzan, nagusiak zaintzen edo baserri lanetan jarduteko. Tel. 603-800105.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 688-727823.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak gauez zaintzeko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 647-314817.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak gauez zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 692-424505.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Ikastaroa eginda. Tel. 658-273926.
– Gizonezkoa eskaintzen da nagusiak zaintzeko, garbiketak egiteko eta txakurrak paseatzeko. Tel. 632-067287.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 604-029356.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia eta erreferentziak. Tel. 689-571882.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 663-448568.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak asteburuetan zaintzeko. Tel. 622-677230.
– Neska arduratsua eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Interna. Tel. 677-553828.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 650-409953. Marbeli.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta dendari moduan. Tel. 697-961386. Jazmin.
– Neska eskaintzen da garbiketak egiteko. Orduka. Tel. 662-024580.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 638-338816.
– Emakume arduratsua eskaintzen da interna lan egiteko. Esperientzia. Tel. 627-230784.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 617-114363.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 635-189294.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Tel. 632-841284.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Tel. 631-620344.
– Neska eskaintzen da edozein lan egiteko. Tel. 602-844282.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 678-112785.
– Mutila eskaintzen da edozein lan egiteko. Eraikuntza, berriztapen, pintura eta garbiketan esperientzia. Tel. 600-264460.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 672-654647.
– Emakumea eskaintzen da umeak edo nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 632-552206.
– Emakumea eskaintzen da goizez edo 18:00etatik aurrera nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel. 655-094780.
– Neska euskalduna eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta umeak zaintzeko. Tel. 687-114707.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko. Orduka, gauez edo asteburuetan. Erreferentziak. Tel. 652-894575.
– Neska eskaintzen da umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 671-479280.
– Mutila eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Esperientzia. Tel. 686-077316.
– Gizona eskaintzen da edozein lan egiteko. Ordutegi zabala. Tel. 632-067943.
– Emakume euskalduna eskaintzen da gauez Mendaroko ospitalean gaixoak zaintzeko. Tel. 669-179522.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 608-723191.
– Neska eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 631-296900.
– Neska eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Tel. 632-139806.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta garbiketak egiteko. Baita asteburuetan eta gauez ere. Tel. 632-337083.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko. Orduka edo gauez. Tel. 642-249158.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Esperientzia. Tel. 602-490595.
– Emakumea eskaintzen da nagusiak edo umeak zaintzeko eta sukalde-laguntzaile jarduteko. Tel. 632-093076.
– Emakumea eskaintzen da etxeko lanak egiteko eta nagusiak zaintzeko. Tel. 631-907532.

### 4.2. Langile bila

– Laser depilazioan eta estetika aurreratuan espezializatutako enpresak estetizista behar du Eibarren zabalduko duen zentrorako. Curriculuma bidali: rrhh@tacto.es.
– Emakumea behar da umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Astelehenetik zapatura. Tel. 677-553828.
– Estetizista behar da ileapaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-200700.
– Ileapaintzailea behar da ilepaindegi batean. Esperientziarekin. Tel. 943-256591
.– Kamareroa behar da Soraluzen jornada osorako. Tel. 943-750030 eta 670-541347.
– Pertsona behar da alzheimerra duen emakumea zaindu eta etxeko lan bat edo beste egiteko. 40 orduko kontratua, astelehenetik zapatura. Betebeharrak: esperientzia edo kualifikazio ikastaroa eta Eibarren bizitzea. Tel. 617-759814.

## 5. Irakaskuntza

### 5.2. Eskaintzak

– Magisteritzan ikasitako ingeleseko tituludun neska euskalduna eskaintzen da klase partikularrak emateko ikasketetan laguntza behar dutenei. Tel. 663-654849.
– DBH eta Batxilergo klase partikularrak ematen ditut: Matematika, Fisika, Kimika, Ekonomia. Talde txikiak. Goiz eta arratsaldez. Tel. 685-739709.
– Euskarazko klaseak ematen dira. Azterketetarako prestaketa: EGA, Osakidetza eta HABEko perfilak... Ume eta helduentzako klaseak. Tel. 620-608065.
– DBH, Batxilergo eta Unibertsitateko Matematikak, Fisika, Kimika, etab.-eko klaseak ematen dira. Banakako klase egokituak edo 2-3 ikasleko taldekoak. Goizez ikasteko aukera. Tel. 677-592509. Alberto.

## 6. Denetarik

### 6.1. Salgai

– Zubi tankerako logela, 1'35ekoa (400 euro), ume-logela, 0'90eko ohe-kabiarekin (400 euro) eta larruazal urdineko hiru plazako sofa (300 euro) salgai. Tel. 619-163031.
– Programatu daitekeen Ecotermic salgai. 13 elementurekin. "Color Azul". Tel. 626-144098.

# Logopedak

**AROR**
PSIKOLOGIA - LOGOPEDIA
(Ume eta helduendako)
**Ana Artamendi**
- Afasiak
- Dislexiak
- Disfoniak
- Hizmoteltasuna
- Dislaliak
- Eskola arazoak
- Degluzio atipikoa

T. Etxebarria, 10 - 6. ezk. (EIBAR)
Tel. 943 20 27 15 / 670 82 43 27

Berba logopedia
Aida Corta Antón
San Agustin, 2-4 (B lokala)
Mobila: 622-629-544
logopeda@berba.es

Ebaluazioa eta tratamendua:
- Hizkuntza
- Mintzaira
- Ahotsa
- Dislexiak
- Entzumena
- Degluzio atipikoa

# Okulistak

Oftalmologoak
Centro de Oftalmología Avanzada
**JOSE ALBERDI**
www.oftalberdi.com
San Juan 11 - solairuartea
943 20 19 82

**Recalde**
Clínica Oftalmológica
Oftalmologi Klinika
· Katarata ebakuntzak
(lente multifokalarekin)
R.P.S. 234/13
Plaza Barria 2. 2º. Tel.: 943 201 844
www.clinicarecalde.com

# Psikoterapia

RPS: 32/17
FUB
PSIQUIATRIA / PSICOTERAPIA / ALFA EIBAR
FERNANDO URIZAR BARANDIARAN
**Medikuntza Psikiatrikoa**
**Ego Gain, 18 - 1 A (Eibar)**
615 71 54 04
**Bailen, 9 - 1. ezk. (Bilbo)**
94 416 49 06
**furizar1@yahoo.com**

# Podologoak

- Kiropodiak, gogortasunak eta kailuak
- Atzazkal orbainduak
- Oinazpiko garatxoak (papilomak)
- Plantillak digitalizatuak (scanner bidezko inpresioa)

**ELENA AIZPUN**
**PODOLOGOA**
124 kolegiatu zenbakia
T. Etxebarria (Dos de Mayo), 5 - 1. A
**943 12 14 93 / 696 555 208**

Bidebarrieta, 48
**EIBAR**
943 203050
Erdiko kale 54
**ARRASATE**
943 799746
PODOLOGOA
Erdiko klinika
Nerea Arregi (123 Kolegiatu zbkia.)
Rosarito Rodriguez (125 Kolegiatu zbkia.)
Amagoia Zubizarreta (122 Kolegiatu zbkia.)

**PODOLOGOA**
**Maider Lopez Etxeberria**
Arragueta 2 Bis-B, Behea B
Tfnoa. 943 82 04 88
65 Kolegiatu zbkia.

**PODOLOGO**
T. ORTOPEDICO
*Iñaki Rivero Zabaleta*
Calbeton, 4 - 2.
(Untzagako dorrea)
Tel. 943 20 86 41

# Psikologoak

AMETS
PSIKOLOGIA KLINIKOA ETA OSASUN ZENTROA
BIDEBARRIETA, 27 - B, 1. solairua, 9. bulegoa
www.centroamets.com

**Coro Ortíz de Urbina**
PSIKOLOGOA (G201987 kolegiatua)
- Masterra Praktika Klinikoan
- Master P.N.L.
- Trainer
Tel. 675 70 68 07

**Maialen Hernandez**
PSIKOPEDAGOGOA
Tel. 605 75 75 06
- Lengoaia trastornoak
- Hiperaktibitatea
- Gizarteratze arazoak
- Autoestima arazoak
- Autoestima arazoak
- Dislexia

PSIKOTERAPIA ZENTRUA
HAUR, NERABE ETA HELDUENTZAKO PSIKOTERAPIA
943 20 22 66
Bidebarrieta, 27-B,1° 3 atea
www.arratepsicoterapia.com

*Lorena Izaguirre Garcia*
PSIKOLOGOA-PSIKOTERAPEUTA
Errebal, 15 - 1. ezk.................EIBAR
Zuberoa, 4.......................ZARAUTZ
Tel. 943 831 618

Psikologia klinika eta Psikoterapia zentroa
*Oscar Mondragon Lili*
GOIZEZ ETA ARRATSALDEZ
Urkizu, 13 - behea
Telf. 943206823 eta 686859023

Tf. 686 85 73 22
moreno_iciar@yahoo.es
**Itziar Moreno**
**PSIKOLOGOA**
Koleg. Zkia. 1947
**GIZENTASUNA**
**ANTSIETATEA**
**AUTOESTIMA ARAZOAK**
943 12 02 00
URKIZU, 13 - 1.
Orbeako dorreetan
centro médico eibar






20 urte baino gehiago zurekin.



Profesional talde handi bat zure irribarrea zaintzen.



Zure irribarre onena geure laborategian diseinatzen dugu.

R.P.S. 123/17

bista eder
clinica dental - hortz klinika

**Deitu** | 943 70 00 82

bista eder, 19 - bajo 20600 eibar
www.bistaeder.es